lingüística del municipio, no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos.

herritarren eskubideak kaltetzen ez badira.

Artículo 9. °

1 . En sus relaciones con la Administración de Justicia, todo ciudadano podrá utilizar la lengua oficial de su elección, sin que se le pueda exigir traducción alguna.

2. Los escritos y documentos presentados en euskera, así como las actuaciones judiciales, serán totalmente válidos y eficaces.

3. El Gobierno Vasco promoverá de acuerdo con los órganos correspondientes, la normalización del uso del euskera en la Administración de Justicia en el País Vasco.

9. artikulua

1. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.

2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta baita epai-jardunak, balio eta eragin-indar osokoak izango dira.

3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien organoekin elkar hartuta, Euskal Herriko Justizia Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko du.

Artículo 10

1. La nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los Organos Forales de los Territorios Históricos o las Corporaciones Locales en el ámbito de sus respectivas competencias, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua.

En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales reseñadas en el párrafo anterior, el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca.

2. Las señales e indicaciones de tráfico instalados en la vía pública, estarán redactados en forma bilingüe respetando en todo caso las normas internacionales y las exigencias de inteligibilidad y seguridad de los usuarios.

3. En caso de que estas nomenclaturas sean sensiblemente distintas, ambas tendrán consideración oficial, entre otros, a los efectos de su señalización viaria.

10. artikulua

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde, udal, biztanle-gune, geografia-gorabehera, hiri-bide eta, orohar, toponimo guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, lurralde historikoetako foru-organoek edota toki-erakundeek finkatuko dituzte, zeinek bere eskumenen eremuan eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantze ala gaztelaniazkoa errespetatuz, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkera akademikoarekin.

Aurreko paragrafoan aipatutako izen ofizialei buruzko gatazkarik piztuko balitz toki-erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du Euskaltzaindiari iritzia eskatu ondoren.

2. Kale-bideetan jarritako bide-seinale eta mezuak bi hizkuntzetan idatzita egongo dira, beti ere nazioarteko arauak errespetatuz eta erabiltzaileentzako ulergarritasun- eta segurtasun-eskakizunak betez.

3. Bi izenok zeharo desberdinak badira, biak izango dira ofizial, besteak beste, bide-seinaleetarako.

Artículo 11

En todos los servicios de transporte público con origen en el País Vasco, los impresos, los avisos y las comunicaciones al público se harán en euskera y en castellano.

11. artikulua

Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzu guztietan inprimakiak, iragarkiak eta herritarrentzako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Artículo 12

1. El Gobierno regulará las condiciones para la obtención y expedición del titulo de traductor jurado entre las dos lenguas oficiales.

2. Asimismo, creará el servicio oficial de traductores, que estará a disposición de los ciudadanos y Entidades Públicas de la Comunidad Autónoma, con el fin de garantizar la exactitud y equivalencia jurídica de las traducciones.

12. artikulua

1. Jaurlaritzak bi hizkuntza ofizialen arteko zinpeko itzultzaile titulua lortzeko eta emateko baldintzak arautuko ditu.

2. Halaber, itzultzaile zerbitzu ofiziala sortuko du, Autonomia Erkidegoko herritarren eta entitate publikoentzat lan egingo duena, itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetza juridikoa ziurtatzeko.

Artículo 13

Los impresos o modelos oficiales que hayan de utilizarse por los poderes públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán estar redactados

13. artikulua

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-aginteek erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

en forma bilingüe.

Artículo 14

1 . A fin de hacer efectivos los derechos reconocidos en el artículo 6 ° de la presente Ley, los poderes públicos adoptarán las medidas tendentes a la progresiva euskaldunización del personal afecto a la Administración Pública en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Los poderes públicos determinarán las plazas para las que es preceptivo el conocimiento de ambas lenguas.

3. En las pruebas selectivas que se realicen para el acceso a las demás plazas de la Administración en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se considerará, entre otros méritos, el nivel de conocimiento de las lenguas oficiales, cuya ponderación la realizará la Administración para cada nivel profesional.

CAPITULO SEGUNDO

Del uso del euskera en la enseñanza

Artículo 15

Se reconoce a todo alumno el derecho de recibir la enseñanza tanto en euskera como en castellano en los diversos niveles educativos.

A tal efecto, el Parlamento y el Gobierno adoptarán las medidas oportunas tendentes a la generalización progresiva del bilingüismo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 16

1. En las enseñanzas que se desarrollen hasta el inicio de los estudios universitarios, será obligatoria la enseñanza de la lengua oficial que no haya sido elegida por el padre o tutor, o, en su caso, el alumno, para recibir sus enseñanzas.

2. No obstante, el Gobierno regulará los modelos lingüísticos a impartir en cada centro teniendo en cuenta la voluntad de los padres o tutores y la situación sociolingüística de la zona.

3. Los centros privados subvencionados con fondos públicos que impartan enseñanzas regladas tomando como base una lengua no oficial en la Comunidad, impartirán como asignaturas obligatorias el euskera y el castellano.

Artículo 17

El Gobierno adoptará aquellas medidas encaminadas a garantizar al alumnado la posibilidad real, en igualdad de condiciones, de poseer un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas oficiales al finalizar los estudios de enseñanza obligatoria y asegurará el uso ambiental del euskera, haciendo del mismo un vehículo de expresión normal, tanto en las actividades internas como externas y en las actuaciones y documentos administrativos.

Artículo 18

Los planes de estudio se adecuarán a los objetivos propuestos en los artículos 15, 16 y 17.

14. artikulua

1. Lege honen 6. artikuluan aitortzen diren eskubideak gauzatzeko, herri-aginteek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.

2. Herri-aginteek finkatuko dute zein lanpostutarako izango den derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea.

3. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko administrazioko gainerako lanpostuetara sartzeko egin daitezen hauta-probetan hizkuntza ofizialen ezagupen-maila hartuko da kontutan merezimendu gisa, besteak beste. Administrazioak finkatuko du lanpostu-maila bakoitzerako zein pisu izango duen.

BIGARREN KAPITULUA

Euskararen erabilera irakaskuntzan

15. artikulua

Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan.

Horretarako, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

16. artikulua

1. Unibertsitate-hezkuntza hasteraino egiten diren ikasketetan derrigorrezkoa izango da ikasketok hartzeko guraso edo kuradoreak edota, hala denean, ikasleak berak, aukeratu ez duen hizkuntza ofíziala irakastea.

2. Dena den, Jaurlaritzak ikastetxe bakoitzean irakatsi beharreko hizkuntza-ereduak finkatuko ditu, guraso-kuradoreen nahia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontutan.

3. Ikasketa arautuak Erkidegoan ofíziala ez den hizkuntza batean irakasten duten diru publikoz lagundutako ikastetxe pribatuek euskara eta gaztelania irakatsiko dituzte derrigorrezko ikasgai gisa.

17. artikulua

Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek ,aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu; halaber, euskal giroa ziurtatuko du, euskara [ikastetxeetako] barne- nahiz kanpo-jardueretan eta administrazio-ekintza eta -dokumentuetan ohiko tresna bihurtuz.

18. artikulua

Ikasketa-planak 15, 16 eta 17. artikuluetan finkatutako henburuei egokituko zaizkie.

Artículo 19

Las Escuelas Universitarias de Formación del Profesorado, adaptarán sus planes de estudio para conseguir la total capacitación en euskera y castellano de los docentes, de acuerdo con las exigencias de su especialidad.

Artículo 20

1. El Gobierno, a fin de hacer efectivo el derecho a la enseñanza en euskera, establecerá los medios tendentes a una progresiva euskaldunización del profesorado.

2. Asimismo determinará las plazas o unidades docentes para las que será preceptivo el conocimiento del euskera, a fin de dar cumplimiento a lo previsto en los artículos 15 y 16 de la presente Ley.

Artículo 21

Los alumnos que hayan iniciado sus estudios de E.G.B. fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco o aquellos que justifiquen debidamente su residencia no habitual en la Comunidad Autónoma, podrán ser eximidos de la enseñanza del euskera según el procedimiento que se establezca a tal efecto.

CAPITULO TERCERO

Del uso del euskera en los medios de comunicación social

Artículo 22

Se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a ser informados por los medios de comunicación social tanto en euskera como en castellano.

A tal efecto, el Gobierno adoptará las medidas conducentes a aumentar la presencia del euskera en los medios de comunicación social, tendiendo a la equiparación progresiva en el uso de ambas lenguas oficiales.

Artículo 23

El Gobierno promoverá el empleo preferente del euskera en los medios de comunicación de la Comunidad Autónoma, a fin de garantizar la equiparación de ambas lenguas establecidas en el artículo anterior.

Artículo 24

El Gobierno impulsará la normalización lingüística en los centros emisores de RTVE a fin de asegurar una adecuada presencia del euskera como lengua propia del País Vasco.

Artículo 25

El Gobierno, a fin de garantizar de forma progresiva el derecho reconocido en el artículo 22, adoptará las medidas encaminadas a la promoción y protección del uso del euskera potenciando en todo caso su difusión y posibilidades de utilización efectiva en:

-La radiodifusión.

-La prensa y publicaciones.

19. artikulua

Irakasleen prestakuntzarako unibertsitate-eskolek beren ikasketa-planak egokituko dituzte, irakasleek euskara eta gaztelania erabat menperatu ditzaten, nork bere espezialitatearen eskakizunen arabera.

20. artikulua

1. Jaurlarizak, euskarazko irakaskuntzarako eskubidea gauzatzeko, irakasleria gero eta euskaldunagoa lortzeko bitartekoak jarriko ditu.

2. Halaber, Lege honen 15. eta 16. artikuluetan aurrikusitakoa betetze aldera, euskara jakitea zein irakaspostu edo ikasgelatarako izango den derrigorrezko zehaztuko du.

21. artikulua

OHOko ikasketak Euskal Herriko Autonomia Erkidegotik kanpo hasita dituzten ikasleek edota beren ohiko bizilekua Autonimia Erkidogoan ez dutela behar bezala egiaztatzen dutenek , euskara ikastetik salbuetsita gera daitezke, horretarako finkatuko den prozedurari jarraituz.

HIRUGARREN KAPITULUA

Euskararen erabilera hedabideetan

22. artikulua

Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea.

Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino.

23. artikulua

Jaurlaritzak, aurreko artikuluan agindutako bi hizkuntzen arteko berdintasuna ziurtatze aldera, Autonomia Erkidegoko hedabideetan euskara lehentasunez erabili dadin bultzatuko du.

24. artikulua

Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioa bultzatuko du Espainiako Irratí-Telebistaren emanaldi-zentroetan, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza propioa denez, behar duen presentzia izan dezan.

25. artikulua

Jaurlaritzak, 22. artikuluan aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeko, euskararen erabilera bultzatu eta babesteko neurriak hartuko ditu eta, nolanahi ere, honako hauetan hedatu eta benetan erabiltzea ahalbidetuz:

-irratian,

-egunkari eta aldizkarietan,

-La cinematografía.

-Teatro y espectáculos.

-Medios de reproducción de imagen y sonido.

A tal efecto se desarrollará el oportuno título dentro de las leyes que contemplen y regulen los anteriores puntos.

CAPITULO CUARTO

Del uso social y otros aspectos institucionales del euskera

Artículo 26

Los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a los ciudadanos el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

Artículo 27

1. Los poderes públicos vascos fomentarán el uso del euskera en la publicidad.

2. Asimismo, impulsarán el uso ambiental del euskera y su empleo en la rotulación de todo tipo de entidades mercantiles, recreativas, culturales y asociativas de carácter no oficial.

Artículo 28

El Gobierno promoverá la enseñanza del euskera para adultos y la alfabetización de la población vasco-parlante mediante la creación de un Ente Público a tal efecto. Mediante ley del Parlamento Vasco se regulará la normativa correspondiente.

Artículo 29

El Gobierno, con el fin de facilitar la tarea de normalización del uso del euskera, creará un órgano de encuentro, que tendrá por objeto estudiar, canalizar y coordinar los esfuerzos y las actividades de las diversas Instituciones, en lo referente a la aplicación y desarrollo de esta Ley.

CAPITULO QUINTO

Del uso del euskera como lengua escrita oficial

Artículo 30

El Gobierno velará por la unificación y normalización del euskera en su condición de lengua escrita oficial común en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio del respeto a los diversos dialectos, parte esencial del patrimonio cultural del País Vasco, en las zonas en que son hablados.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.-El Gobierno, en el ámbito de sus competencias, establecerá vínculos culturales con aquellas instituciones o poderes que, actuando fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, realicen actividades de investigación, protección y fomento del euskera.

-zineman,

-antzerki eta ikuskizunetan,

-irudiaren eta soinuaren grabaziotan.

Horretarako, gaiok ukitu eta arautu ditzaten legeetan titulu apropos bana garatuko da.

LAUGARREN KAPITULUA

Euskararen gizarte-erabilera eta erakundeen alorreko beste zenbait alderdi

26. artikulua

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroletako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

27. artikulua

1. Euskal herri-aginteek euskararen erabilera sustatuko dute publizitatean.

2. Halaber, euskal giroa eta euskara errotulazioan erabiltzea bultzatuko dute, era guztietako entitate komertzial, atsedenarako, kulturarako zein ofizialtasunik gabeko elkarteetan.

28. artikulua

Jaurlaritzak helduen euskalduntzea eta euskaldunen alfabetatzea bultzatuko ditu, horretarako erakunde publiko bat sortuz. Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatuko du horretarako araubidea.

29. artikulua

Jaurlaritzak, euskararen erabileraren normalizazioa ahalbideratzeko, Lege hau gauzatu eta garatze aldera erakunde guztien lanak eta ahaleginak aztertu, bideratu eta bateratzea helburu izango duen topagune bat sortuko du.

BOSTGARREN KAPITULUA

Euskararen erabilera hizkuntza idatzi ofizial gisa

30. artikulua

Jaurlaritzak euskararen batasuna eta normalizazioa begiratuko du, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan idatzizko hizkuntza ofizial komun denez, Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokietan zor zaien begirunea gora behera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo jardunik, euskararen ikerketan, babesean eta sustapenean lan egiten duten erakunde edo aginteekiko kultura harremanak bideratuko ditu.

Segunda.-El Gobierno elaborará el mapa de planificación socio-lingüística del País Vasco que será revisado periódicamente, previa información al Parlamento Vasco.

Tercera.-El Gobierno Vasco promoverá, de acuerdo con los órganos competentes, la adopción de medidas tendentes a la progresiva normalización del uso del euskera en la Administración del Estado o en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo regulado en los artículos 6, 8, 11, 13 y 14 de la presente Ley.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.-Todos aquellos procedimientos y expedientes que hayan sido iniciados en las distintas administraciones públicas con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley, continuarán hasta su conclusión en la lengua en la que se hayan iniciado.

Segunda.-El Gobierno, a instancia de los poderes públicos locales, y atendiendo especialmente a la situación socio-lingüística de la zona, podrá exceptuar temporalmente en el ámbito de su competencia, la aplicación de artículos de la presente Ley que no resulten de obligado cumplimiento por imperativo constitucional o estatutario.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la presente Ley.

DISPOSICION FINAL

Se autoriza al Gobierno para dictar las disposiciones de carácter reglamentario necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Ley que entrará en vigor al día siguiente de la publicación en eh Boletín Oficial del País Vasco.

Bigarrena.- Jaurlaritzak, Euskal Herriko plangintza soziolinguistikorako karta egingo du eta aldian-aldian berraztertuko, Eusko Legebiltzarrari jakinarazi ondoren.

Hirugarrena.-Eusko Jaurlaritzak, horretarako eskumena duten organoekin elkar hartuta, euskararen erabilera Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Estatuaren Administrazioan arian-arian normalizatzeko neurriak hartzea bultzatuko du, Lege honen 6, 8, 11, 13 eta 14. artikuluetan araututakoetan.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.- Lege hau indarrean sartu aurretik herri-administrazio desberdinetan hasita dauden prozedura eta espediente guztiak, hasi ziren hizkuntzan jarraituko dira amaitu arte.

Bigarrena:- Jaurlaritzak, tokiko herri-aginteek eskaturik eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa bereziki kontutan hartuz, aldi baterako salbuetsi ahal izango du, bere eskumenen esparruan, Lege honetako artikuluren aplikazioa, beti ere Konstituzioaren edo Estatutuaren aginduz derrigorrezkoak ez badira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko ala beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau garatu eta gauzatzeko beharrezko diren erregelamendu-mailako xedapenak emateko eskua ematen zaio Jaurlaritzari. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean Lege hau.

AKORDIOA, 1989.eko ekainaren 27koa, Diputadu Batzarrak, ezaugarriz GHI-062/89-P08-A duen espedientean hartutakoa, hots, Hernaniko 18 (R-5) Poligonoko Barne Erreformarako Plan Bereziko Elementuen Aldaketarako Proiektua onartzeari buruzkoan. 5028

BARAKALDOKO UDALA

IRAGARPENA, Barakaldoko Udalaren Enplegu Publikoaren Eskaintza argitara ematen duena. 5029

ACUERDO de 27 de Junio de 1989, adoptado por el Consejo de Diputados en el expediente GHI-062/89-P08-A, sobre aprobación del Proyecto de Modificación de Elementos del Plan Especial de Reforma Interior del Poligono 18 (R-5) de Hernani. 5028

AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO

ANUNCIO por el que se publica la Oferta de Empleo Público del Ayuntamiento de Barakaldo. 5029

Euskadi Osorako Erabakiak
Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA

2092

6/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak, Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea onartu duela jakizarazten zaie Euskadiko herritar guztiei. Beraz, lege horri men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako nahiz agintari izanik, Euskadiko herritar guztiei.

Gasteiz, 1989.eko uztailak 21.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

ZIOEN ADIERAZPENA

I. Administrazio Publikoa, funtsezko elementu da, zalantzarik gabe, gizarte modernuen garapena, aurrerapena eta ongi izatea lortu ahal izateko. Biztanlegoaren beharrei erantzutea xede duten zerbitzu eta sorozpen mailako egitekoak direla eta, arrunt leku nabarmena lortu du Administrazioak, poliki-poliki, agintaritza publikoen artean, izan ere, gizarte-sail ezberdinetatik etengabe eskatzen zaizkion zerbitzuak oso ugariak bait dira.

Euskal herritarren aurrerakoitasun eta ongi izateko itxaropenei erantzuna emateko ezinbesteko bidetzat jotzen da Administrazioa eta esanahi berezia hartzen du Euskadin, izan ere, eduki eta ekintza zehatzetan gauzatzen den eginkortasuna eman behar bait dio autogobernuari.

Hala ere, Legearen justifikabide diren helburuak betetzeak eta, arazoei benetako irtenbideak emango dizkien bide publiko, bizkor, emankor eta horiengandik hurbileko gisa, Lege hori antolatzeak eragozpen nabarmenak dakartzate, beste kasu batzutan ematen diren eragozpenez gain. Izan ere, Administrazio modernu baten taiuketa antolatzen ahalegin haundia egin behar da, Administrazio hori ihardunean jarriko duten giza-baliabideez hornitu eta, dituen helburuak betetzeko prozedura eta metodo egokiz, zerbitzu publikoen kudeaketaren ardura hartuz. Gainera, Administrazio berria sortze eta sendotze-prozesuak sortarazi dituen beste arazo batzuri ere eman behar zaie irtenbide, Administrazio horren hazte-erritmoa

PRESIDENCIA

2092

LEY 6/1989, de 6 de Julio, de la Función Pública Vasca.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi, que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca. Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

EXPOSICION DE MOTIVOS

I. La Administración Pública es sin duda un elemento básico para el desarrollo, progreso y bienestar de las sociedades modernas. Su misión servicial y asistencial, dirigida a la satisfacción de las necesidades de los ciudadanos, le ha conferido un lugar especialmente destacado entre los poderes públicos de forma paulatina, habida cuenta del alto nivel de prestaciones que cada día se le demandan desde los distintos sectores sociales.

El papel esencial de la Administración adquiere una dimensión singular en Euskadi, como instrumento necesario para atender las expectativas de progreso y bienestar de los ciudadanos vascos, que ha de dar contenido y efectividad constatable en hechos concretos al autogobierno.

No obstante, el cumplimiento de los fines que la justifican, su configuración como un aparato público ágil, operativo e inmediato a los problemas, capaz de darles soluciones eficaces, encuentra, además de las dificultades que se dan en otros casos, unos obstáculos dignos de consideración. En efecto, no sólo ha de asumirse un gran esfuerzo organizativo en el diseño de una Administración moderna, dotándola de unos recursos humanos que la pongan en funcionamiento, ocupándose de la gestión de los servicios públicos conforme a procedimientos y métodos adecuados al cumplimiento de sus objetivos. También hay que solventar problemas adicionales surgidos al hilo del proceso de surgimiento y consolidación de una Ad-

ez bait da beti aurre-plangintzaren ondorio izan, autonomi garapenaren bultzakaden ondorio baizik. Egoera horrek, alde batetik, Estatuko eta horren Erakunde Burujabeetako eraketa periferikoek dituzten estamentuek autonomi Administrazioak eratutako zerbitzu eta organu berriekin batera jokatu beharra ekarri du eta, bestetik, Administrazio honen eta honen zerbitzuan diharduten langileen arteko zuzentzamailako modu askotako harreman ugari, horien errejimenak eta egoerak, ahaleginak egin baldin badira ere, modu askotakoak izaten jarraitzen dutela.

Bestalde, euskal Administrazio kontzeptuak, erabat garatu dadin, guztientzako diren Instituzioak ezezik, Autonomia osatzen duten beste Administrazioak ere hartu behar ditu bere baitan. Eztabaidagarri ez den premisa hau oinarritzat hartuz, Administrazio Publiko guztien euskarri diren langileei tratamendu berdina eman behar zaie, zerbitzu egiten dioten erakundearentzat eskatzen den izaeraren aurkako liratekeen talde itxiak alde batera utziz.

Euskal herritarrek dituzten beharrei erantzuteko administrazio-emankortasunak duen ezinbesteko euskarri den giza-elementua hartzen du kontutan lege honek, Administrazioa bere osoan razionalizatzen ahaleginduz, egon dauden behar zehatzei erantzun ahal izateko, indarrean dauden legeek eskaintzen dituzten bideen barruan egokien diren formulak bilatuz. Lege honek, Autonomi Estatutuko 10.4 atalean ohartemandakoak garatuz, euskal funtzio publikoak izan behar dituen egitura-urratsak eman eta funtzionarien estatutu-errejimena finkatzen du, Estatuak emandako oinarrizko legeei konstituzioaren aldetik izan beharreko errespetua gordez. Horiek horrela izanik ere, ez da ahaztu behar, legea euskal Funtzio Publikoa behin-betiko eratzebidera eramango duen ildoa besterik ez dela eta orain hasten den prozesu honen azken emaitza zehaztuko duten elementuak Administrazio bakoitzaren eguneroko ekintzak, Eusko Jaurlaritzari ematen zaion arau-garapenerako gaitasuna eta Legeak ohartematen dituen gainontzeko mekanismoak erabiltzea direla.

II. Euskal Administrazio Publikoentzat, Arauketa baterakoirik gabe, erabat lurjota geldituko litzatekeen Funtzio Publikoaren euskal eredu bat lortzeko, lege honek eredu hori bideratzeko funtsezko elementu izan nahi du, horretarako, behar hainbat instrumentu artikulatuz. Alde horretatik, euskal autonomia osatzen duten Administrazio guztietako ia langilego oro hartzen du haren aginte-eremuak eta, aldi berean, hasierako eremua orekaz garatzeko beharrezko diren mekanismoak egituratzen ditu, horrek organizazio bakoitzari datxezkon ezaugarriak errespetatuz, faktore berdinek ezarritako egitura izateko bideak sortzen bait ditu.

Geroko euskal Funtzio Publikoaren eraikuntzaan ezinbesteko osagarritzat jotzen den Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea sortzen da, prozesu horretan derrigorrezko ankide ariak izango direnak bildu eta parte hartzeko gune izan eta euskal Administrazio Publiko guztien langilegoarekiko politika osatu beharko duten neurriekiko koordinaketa, aholkularitza eta proposamenak egiteko goi mailako organu gisa hartuz.

ministración de nuevo cuño, cuyo ritmo de crecimiento no ha obedecido siempre a una planificación previa, sino a los impulsos del desarrollo autonómico. Ello ha motivado que en nuestra Administración convivan no sólo estamentos provenientes de la periférica del Estado o de sus Organismos Autónomos, con nuevos servicios y órganos creados por la Administración autónoma, sino también múltiples y variadas relaciones jurídicas entre ella y el personal a su servicio, cuyo régimen y situación, a pesar de los esfuerzos realizados, siguen siendo diversos.

De otro lado la idea de Administracion vasca no puede ser reconducida única y exclusivamente al ámbito de las Instituciones Comunes, sino que el concepto, para alcanzar su plena integridad, debe comprender a las restantes Administraciones que configuran el hecho autonómico. Sobre esa incuestionable premisa, el elemento humano que sirve de soporte a las distintas Administraciones Públicas requiere de un igual tratamiento, evitando la formación de compartimentos estancos, contradictorios con la naturaleza que se predica para la organización a la que sirven.

A este elemento humano, soporte decisivo de la eficacia administrativa en la atención de las necesidades que aquejan a los ciudadanos vascos, se refiere la presente ley, en un empeño racionalizador de la Administración en su conjunto, buscando las fórmulas que, dentro del margen que ofrece el vigente ordenamiento jurídico, son más idóneas para las concretas necesidades existentes. Con la presente ley, en desarrollo de las previsiones contenidas en el artículo 10.4 del Estatuto de Autonomía, se marcan las líneas estructurales de lo que habrá de ser la función pública vascas y se fija el régimen estatutario de sus funcionarios, dentro del constitucionalmente obligado respeto a la legislación básica emanada del Estado. Ello no obstante, no cabe olvidar que la ley es únicamente el hilo conductor de la definitiva configuración de la función pública vasca, y que serán la acción cotidiana de cada Administración, el desarrollo reglamentario que se atribuye al Gobierno Vasco y el uso de los restantes mecanismos que la norma prevé, los elementos que determinarán el resultado final del proceso que ahora se inicia.

II. En el objetivo de alcanzar un modelo vasco de función pública para la totalidad de las Administraciones Públicas vascas, que quedaría por completo desvanecido sin un marco unitario de regulación, la ley pretende constituirse en el elemento básico que lo posibilite, articulando para ello suficientes instrumentos. Bajo tal perspectiva, extiende su ámbito de aplicación, con generosa amplitud, a la cuasi totalidad del personal que integra las distintas Administraciones conformadoras de la autonomía vasca, y al mismo tiempo vertebra los mecanismos precisos para un desarrollo armonizado del marco inicial, que, respetando las peculiaridades inherentes a cada organización, permite contar con una estructura determinada por iguales factores.

Como una de las piezas esenciales en el proceso de construcción de la futura función pública vasca, se constituye el Consejo Vasco de la Función Pública, centro de confluencia y participación donde se aglutinan quienes habrán de ser necesariamente los copartícipes activos de tal proceso y al que se configura como órgano superior de coordinación, consulta y propuesta de las medidas que habrán de integrar la política de personal de las distintas Administraciones Públicas vascas.

Autonomi Elkarteko Funtzio Publikoaren batasuna sendotzeko funtsezko faktoreetako bat aukeraketa egitea denez, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeari ematen dio Legeak aukeraketa-prozesu ezberdinak kidekatzeko gaitasuna, bai nahitaez epaimahaietako kide izanez, baita, batez ere, Erakunde Burujabe horren bidez, arauak administrazio ezberdinei aukeraketa egiteko eskaintzen dien aukeraz ere. Azken mekanismo honen bidez, aukeraketak egiteko guztientzakoa izango den organu bakarra lortzeko bidea zabaltzen da, hori poliki-poliki ezartzea euskal Administrazioen beren borondateak finkatuko duela. Hain garrantzi handiko gai honetan komeniko litzatekeen erizpide-batasuna lortzeko bide hori, Kidegotan edo antzeko Eskaletan sartzeko prozesuak kidekatzeko gutxieneko edukiak finkatzeko Jaurlaritzari emandako gaitasunaz amaitzen da.

III. Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu-zerrendak, administrazio-karrerako funtsezko elementu, lansari-sistemaren muinik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio-egiturak arrazoibideratzeko eragile bilakatuz. Lanpostuak eratzeko erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura-bideak ezartzen ditu legeak, baina lanpostu-zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horrien indarra. Ondorioz, lanpostu-zerrenda horiek izakera dinamikoa dute eta horrek Administrazio Publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokiketa-prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz bait doaz.

Era berean, funtzionariak Kidego eta Eskaletan biltzea ohartematen du legeak, horiek izatea lanpostu-zerrendak eratzeko beharrezko osagarri bait da eta honek sartzeko eta barne-mailatan gora egiteko guztientzako saioak arrazoibideratzeko bideak eskaintzen ditu. Argi eta garbi zehazten ditu legeak Sailen egitekoak eta hauek Funtzio Publikoaren egituran txertatzeko modua eta, aldi berean, agiango interes korporatibisten eraginak, iraganeko haizekeria patrimonialistak baztertuz, lanpostu-zerrendei, hauek euskal Funtzio Publikoaren lokarri-elementu direnez, ematen zaien lehentasuna bazter uztea eragozteko neurriak artikulatzen ditu. Gehigarrizko erabakietan, ematen zaizkien egitekoak kontutan hartuz onentzat jotzen diren Kidegoak sortzen ditu legeak, karrera edo lanbide batek bereak dituen eduki bateratzaileka eta administrazio-ihardun guztiei ohizkoak zaizkien kudeaketa-eginkizunak betetzearen arabera egituratuz.

IV. Legeak, bere IV. Idazpuruan, funtzionari publikoen estatutu-errejimena jasotzen du, egoera horretara heltzeko eta funtzionari izatea galtzeko direlako moduak arautzen ditu eta hiru zutaberen gainean eraikitzen da administrazio-karrera: Gradua, barne-mailatan gora egitea eta tokiz aldatu ahal izatea. Azkenik, estatutu-errejimenari buruzko gainontzeko aldeak artikulatzen ditu, Funtzio Publikoaren beste ordenamenduetan ohizko izan denaren antzera, zenbait berarizkotasunen kaltetan gabe, eta horiek, garrantzi gutxikoak edo batipat teknika mailakoak direnez, ez dute beste inolako oharpiderik behar.

Siendo la selección otro de los factores fundamentales en la consolidación del carácter unitario de la función pública en la Comunidad Autónoma, la ley asigna al Instituto Vasco de Administración Pública el carácter de elemento homogeneizador de los distintos procesos selectivos, tanto a través de su obligada participación en la composición de los tribunales calificadores como fundamentalmente por la posibilidad que la norma ofrece a las distintas administraciones de efectuar la selección de su personal a través del Organismo Autónomo. Mediante este último mecanismo, se abre una vía hacia la consecución de un órgano común de selección, cuya progresiva implantación vendrá determinada por la voluntad de las propias Administraciones vascas. El marco destinado a lograr la deseable unificación de criterios en cuestión de tan capital importancia se cierra con la facultad otorgada al Gobierno de fijar los contenidos mínimos homogeneizadores en los procesos de acceso a Cuerpos o Escalas análogas.

III. La ley erige a las relaciones de puestos de trabajo como la columna vertebral sobre la que descansa la estructuración del sistema, convirtiéndolas en el elemento esencial de la carrera administrativa, núcleo fundamental del sistema retributivo y, sobre todo, factor de racionalización de las estructuras administrativas. La ley marca los principios básicos y cauces procedimentales a que debe atenerse su formación, pero las relaciones de puestos de trabajo, y en ello radica su virtualidad, deben ser en todo momento la expresión real de las necesidades de la organización, y que, por tanto, tienen una naturaleza dinámica, que obliga a un proceso constante de adecuación a las cambiantes necesidades que demanda el cumplimiento de los fines de la Administración Pública.

La ley prevé a su vez la agrupación de los funcionarios en Cuerpos y Escalas, cuya existencia se justifica en su carácter de necesario complemento ordenador de las relaciones de puestos de trabajo, que posibilita la racionalización de las pruebas comunes de acceso y la promoción interna. La ley precisa con claridad la función de los Cuerpos y su forma de incardinación en la estructura de la función pública, y al mismo tiempo arbitra las medidas tendentes a evitar que la influencia de posibles intereses corporativos, reproduciendo veleidades patrimonialistas pretéritas, puedan soslayar la primacía que se otorga a las relaciones de puestos de trabajo como elemento vertebrador de la función pública vasca. En sus disposiciones adicionales, la ley crea los cuerpos que se han considerado óptimos en atención a la función que se les otorga, estructurándolos por contenidos homogéneos propios de una carrera o profesión, y por el desempeño de las tareas de gestión ordinarias comunes a la actividad administrativa.

IV. La ley abarca en su Título IV el régimen estatutario de los funcionarios públicos, regula las formas de acceso a tal condición y los tasados supuestos en que la misma se pierde y delimita la carrera administrativa sobre tres pilares básicos: el grado, la promoción interna y la movilidad. Finalmente, articula los restantes extremos referidos al régimen estatutario en forma análoga a la tradicional en otros ordenamientos de función pública, sin perjuicio de determinadas peculiaridades cuya escasa relevancia, o su carácter eminentemente técnico, obvian cualquier consideración.

V. Zerbitzu egiten dion herriaren bidezko eskabideei erantzungo dien elebidun Administrazioa sortzea ezin alboratuzko beharra denez, Funtzio Publikoaren hizkuntz normalkuntzari heltzen dio legeak bere V Idazpuruan. Horretako, bere formulazioa egiten du legeak, horrela, hizkuntz eskakizuna, lanpostuak berekin daraman elementutzat hartuz, oinarri izanik, aurreko legeetan egindako egiturari jarraiki. Ikuspuntu hau oinarritzat hartuz, funtzio publikoaren eremuari buruzko arau-formulazioak hiru alderi eragiten die: Agintze-indarra erabilgarri izan daitekeen uneari begira era ezberdina izango duen hizkuntz-eskakizuna lanpostuan sartzeko baldintza gisa sortzea; sartzeko deiak hizkuntz beharrei egokitzea, dauden eskabideei erantzuteko behar hainbateko giza-baliabidez hornitu ahal izateko Administrazioei bide emanez, eta, azkenik, hizkuntz eskakizuna eskatzerik ez denean, euskeraren ezagupena merezimendu gisa neurtzea.

VI. Euskal Funtzio Publikoa osatzen duten langileen arauketa osatuz, lan-itunepeko eta behin-behingo langilegoa eta bitarteko funtzionariak hartzen ditu barne legeak. Estatutu-errejimena berdin ezartzea ohartematen da hauentzako, horien zerrendaren nolakoak berak dakartzan ezberdintasunak izan ezik, eta bestalde, aldi baterako sortu eta justifikatzen diren egoerek berenez ez duten iraupen-maila lortzea eragozteko beharrezko mekanismoak jartzen ditu.

VII. Aldi baterako erabakiek, funtsean, araupide-eremu berriari egokitzeko beharrezko neurriak, hori behin-betiko finkatu arteko aldi baterako errejimena eta, lege honek beteko duen araupide-eremurik ez zegoelako, haien lan-zerrendaren nolakoak eskatzen zuen estatutuan sartzerik izan ez zuten eta, beraz, Administrazioari aldi baterako zerbitzu egitera behartuta gelditutakoak euskal Funtzio Publikoan sartzeko bideei heltzen die. Era honetan, orain arte lanzerrenda finkoan sartzea galerazia zutenen bidezko eskabideei erantzuten zaie, horretako, berarizko legemanuz edo jurisprudentzia-erizpidez horiek justifikatzearen kaltetan gabe, behar bezala egiaztatutako gaitasun-gradua onartu eta ebaluatzeari bide emango dien prozedurak erabiliz.

I. IDAZPURUA

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEGOAZ

I. Atalburua. Erabaki Nagusiak

1. Atala.— 1.— Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 10. atalaren 4. idazatiak dioenaren arabera, lege honen helburua euskal Funtzio Publikoaren eta hori osatzen duen langilegoaren errejimen juridikoaren eraketa eta arauketa egitea da.

2.— Egitekoak betetzeko inpartzialtasun eta profesionaltasun eta, interes orokorrak kudeatzeko, eragingarritasun eta objetibotasun-irizpideen arauera eratzen da euskal Funtzio Publikoa.

2. Atala.— 1.— Honako langile honi ezarriko zaio lege hau:

a) Euskadiko Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorraren eta honen Erakunde Burujabeen zerbitzukoari,

V. En el irrenunciable deber de construir una Administración bilingüe, que satisfaga las legítimas demandas del pueblo al que sirve, la ley aborda en su Título V la normalización lingüística en la función pública. Para ello, la ley articula su formulación, alineándose así con la estructura vertebrada en los precedentes legislativos, sobre la base del perfil lingüístico, entendido como un elemento inherente al puesto de trabajo. Sobre tal perspectiva, la formulación normativa en el área de función pública incide en una triple vertiente: la constitución del perfil como requisito de acceso al puesto de trabajo en forma diferenciada según el momento en que sea operativa su preceptividad; la adecuación de las convocatorias de ingreso a las necesidades lingüísticas de modo que se posibilite a las Administraciones la adecuada dotación de medios personales para atender a las demandas existentes, y, por último, la evaluación del conocimiento del euskera como mérito cuando el perfil lingüístico no fuera exigible.

VI. Completando el marco de regulación del personal que integra la función pública vasca, la ley recoge al personal laboral y eventual, y a los funcionarios interinos. Para éstos prevé la igual aplicación del régimen estatutario sin diferenciaciones, salvo las motivadas por la propia naturaleza de su relación, y, de otro lado, arbitra los mecanismos necesarios para evitar que situaciones que nacen y se justifican en la transitoriedad puedan alcanzar estatus de permanencia extraños a su naturaleza.

VII. Las disposiciones transitorias abordan fundamentalmente las medidas precisas de acomodación al nuevo marco normativo, el régimen transitorio hasta su definitiva implantación y las fórmulas de integración en la función pública vasca de quienes, por la carencia del marco normativo que esta ley viene a rellenar, no pudieron acceder al estatuto que la naturaleza de su relación demandaba, quedando obligados a servir a la Administración bajo fórmulas de carácter transitorio. Con ello se atienden las justas demandas de acceso a una relación estable para quienes hasta ahora la tenían vedada, utilizando para ello procedimientos que, sin perjuicio de su justificación en disposiciones legales expresas o en criterios jurisprudenciales, permitan el reconocimiento y evaluación de un grado de capacidad suficientemente acreditado.

TITULO I

DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LAS ADMINISTRACIONES PUBLICAS VASCAS

Capítulo I. Disposiciones generales

Artículo 1. 1.— El objeto de esta ley, conforme a las previsiones contenidas en el apartado 4 del artículo 10 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, es la ordenación y regulación de la función pública vasca y del régimen jurídico del personal que la integra.

2.— La función pública vasca se ordena de acuerdo con los principios de imparcialidad y profesionalidad en el ejercicio de las funciones, y eficacia y objetividad en la gestión de los intereses generales.

Artículo 2. 1.— La presente ley es de aplicación al personal al servicio de:

a) La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos,

b) Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren zerbitzukoari,

c) Lan-Harremanetako Kontseiluaren zerbitzukoari,

d) apirilaren 2ko 7/85 Legeko 5. atalak dioenaren arabera, foru eta toki-Administrazioen zerbitzuetakoari,

e) abuztuaren 25eko, Unibertsitatearen Eraberrikuntzako 11/1983 Oinarri-Legean ohartemandakoen arabera, Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzukoari, eta hori, unibertsitate-burujabetasunari begirune izatearen kaltetan gabe, eta

f) Batzar Nagusien zerbitzukoari.

2.– Lan-itunepeko langilegoak lan-Zuzenbideko arauak eta hura berariz aipatzen duten lege honetako aginduak izango ditu jaurpide.

3.– Lege hau ezarriz, arau bereziak eman ahal izango dira, legea, osasun, irakaskuntza eta ikerlaritza-langileen berezitasunei egokitu ahal izateko.

4.– Lege honek ordezkotza-izakera du, legearen ezarpen-eremuak hartzen ez dituen euskal Administrazio Publikoen zerbitzuan diharduten langile guztientzat.

5.– Lege honetako euskal Administrazio Publikoei buruzko aipamenak, atal honetako lehenengo idazatian jasotzen direnei buruzkotzat joko dira.

II. Atalburua. Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langilegoa

3. Atala.– Honako hauek osatzen dute lege honen ezarpen-eremuak hartzen duen euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langilegoa:

a) karrerako funtzionariek,
b) bitarteko funtzionariek,
c) behin-behingo langileek, eta
d) lan-itunepeko langileek.

III. Atalburua. Organuak eta horiei dagozkienak.

Lehenengo Saila. Goi mailako organuak.

4. Atala.– Funtzio publikoan honako hauek dira goi mailako organuak:

a) Eusko Jaurlaritza,
b) Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Saila, eta
c) Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua.

Bigarren Saila. Eusko Jaurlaritza.

5. Atala.– Honako hauek dagozkio Eusko Jaurlaritzari:

a) funtzio publikoaren arloari buruzkoan legegintza eta araudigintzarako ahalmena baliatzea,

b) titulazio-Talde bakoitzari dagozkion gutxieneko eta gehieneko mailak zehaztea,

c) Lan eta Gizarte-segurantzako Sailak proposatuta eta gai den Administrazioaren eremuan ordezkotzarik haundiena duten sindikaritza-erakundeei iritzia eskatu ondoren, Euskal Administrazioen zerbitzuko langilegoak greba egin dezan kasuetako, gutxieneko zerbitzuak bermatzeko beharrezko neurriak hartzea,

d) Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailburuak proposatuta, Autonomi Elkarteko Administrazioko langilegoari buruzko politika orokorra jartzea,

b) El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas,

c) El Consejo de Relaciones Laborales,

d) La Administración foral y local, conforme a las previsiones contenidas en el artículo 5 de la Ley 7/85, de 2 de abril,

e) La Universidad del País Vasco, conforme a las previsiones contenidas en la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, y ello sin perjuicio del respeto a la autonomía universitaria, y

f) Las Juntas Generales.

2.– El personal laboral se regirá por las normas de Derecho laboral y por los preceptos de esta ley que hagan expresa referencia al mismo.

3.– En aplicación de esta ley podrán dictarse normas específicas para adecuarla a las peculiaridades del personal sanitario, docente e investigador.

4.– La presente ley tiene carácter supletorio para todo el personal al servicio de las Administraciones Públicas vascas no incluido en su ámbito de aplicación.

5.– Las referencias de esta ley a las Administraciones Públicas vascas se entenderán siempre hechas a las comprendidas en el apartado primero del presente artículo.

Capítulo II. Personal al servicio de las Administraciones Públicas vascas

Artículo 3.– El personal al servicio de las Administraciones Públicas vascas, incluido en el ámbito de aplicación de esta ley, se integra por:

a) funcionarios de carrera,
b) funcionarios interinos,
c) personal eventual, y
d) personal laboral.

Capítulo III. Organos y sus competencias

Sección primera. Organos superiores

Artículo 4.– Son órganos superiores en materia de función pública:

a) el Gobierno Vasco,
b) el Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, y
c) el Consejo Vasco de la Función Pública.

Sección segunda. El Gobierno Vasco

Artículo 5.– Corresponde al Gobierno Vasco:

a) Ejercer la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria en materia de función pública,

b) Determinar los niveles mínimos y máximos que correspondan a cada Grupo de titulación,

c) Adoptar, a propuesta del Departamento de Trabajo y Seguridad Social y previa consulta a las organizaciones sindicales más representativas en el ámbito de la Administración correspondiente, las medidas necesarias para garantizar los servicios mínimos en los casos de huelga del personal al servicio de las Administraciones Públicas vascas,

d) Establecer, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, la política general de personal en la Administración de la Comunidad Autónoma,

e) Autonomi Elkarteko ordezkariek, lan-baldintzei buruz, funtzionarien ordezkariekin izan ditzaten negoziaketetan haiei atxiki beharko zaizkieneko jarraibideak eta artezpideak ematea eta, hala behar izanez gero, lortutako akordioei balioa eta indarra ematea,

f) Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren ordezkariek langilegoarekiko harreman kolektiboetan erabili beharreko dituzten ekintza-erizpideak finkatzea eta lortutako akordioak onartzea,

g) Euskal Autonomi Elkartearen zerbitzuko funtzionarien lansari-errejimenari eta gainontzeko langileen lansari-baldintzei ezartzeko arauak eta artezpideak urtero jartzea,

h) Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuan, lanpostuen sailkapen-erizpideak finkatzea eta haien zerrendak onartzea,

i) Autonomi Elkarteko Administrazioko enplegu publikoaren urteroko eskaintza onartzea,

j) euskal Administrazio Publikoetako enplegu publikorako eskaintza bateratua onartu eta argitaratzeko, erizpide eta artezpide nagusiak, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak proposatuta, jartzea,

k) zerbitzutik behin-betiko aldentzeko zigorra ekar dezatenean, Autonomi Elkarteko Administrazioko funtzionarien aurka hasiera emandako zigor-espedienteekiko ebazpen-proposamenei erabakia ematea, eta

l) indarrean dauden araupideek eman diezazkioten gainontzeko eginkizunak betetzea.

Hirugarren Saila. Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Saila.

6. Atala.— 1.— Honako hauek dagozkio Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailari:

a) Funtzio Publikoari dagozkionetan arau orokorrei buruzko proiektuak eratzea eta, Funtzio Publikoaren gaiekiko arloei dagozkienetan, lege-aurreproiektuekiko eta manu orokorrei buruzko proiektuekiko txostena derrigorrez egitea,

2.— Transferentzien ondorioz euskal Administrazio Publikoetan sartu diren edo sar daitezen beste Administrazio Publikoetako funtzionariek sartu direneko Administrazioko bereko funtzionari-egoera lortuko dute, lehen zuten Kidego edo Eskalako Taldea gordeko zaiela, baita aitorturik luketen bere mailari datxezkon diru-eskubideak ere.

Capítulo V. Registro de personal

Artículo 34. 1.— En cada una de las Administraciones Públicas vascas existirá un registro de personal, en el que figurará inscrito la totalidad del personal al servicio de las mismas.

2.— En el registro de personal constarán todas las incidencias que afecten a la vida administrativa del personal inscrito, sin que pueda figurar dato alguno relativo a raza, religión u opinión.

3.— No podrán incluirse en nómina remuneraciones de ningún tipo, sin haberse inscrito previamente en el registro de personal el acto o resolución que las hubiere reconocido.

4.— La utilización de los datos que consten en el registro estará sometida a las limitaciones previstas en el apartado 4 del artículo 18 de la Constitución. El personal inscrito tendrá libre acceso a su expediente individual y derecho a que se le expidan certificados de los extremos que figuren en el mismo.

5.— Reglamentariamente se determinará la organización, funcionamiento y contenido de los registros de personal. En todo caso, se establecerán los contenidos mínimos homogeneizadores, los efectos declarativos o constitutivos del acto o resolución inscrita y las medidas técnicas que garanticen la coordinación con los demás registros de personal.

6.— El registro de personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma se adscribe al Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

TITULO III

DE LOS FUNCIONARIOS DE LAS ADMINISTRACIONES PUBLICAS VASCAS

Capítulo I. Disposiciones generales

Artículo 35.— Son funcionarios de carrera quienes, en virtud de nombramiento legal, presten servicios de carácter permanente mediante una relación profesional regulada por el Derecho administrativo, y ocupen puestos de trabajo presupuestariamente dotados o se encuentren en alguna de las situaciones previstas en la presente ley.

Capítulo II. Adquisición y pérdida de la condición de funcionario

Artículo 36. 1.— La condición de funcionario de carrera de las Administraciones Públicas vascas se adquiere por el acceso a plazas de plantilla presupuestaria pertenecientes a un Cuerpo o Escala, mediante el cumplimiento sucesivo de los siguientes requisitos:

a) Superación del procedimiento selectivo,

b) Nombramiento conferido por la autoridad competente, y

c) Tomar posesión dentro del plazo reglamentario.

2.— Los funcionarios de otras Administraciones Públicas que hayan accedido o accedan a las Administraciones Públicas vascas en virtud de transferencias adquirirán la condición de funcionarios propios de la Administración de destino, respetándoseles el Grupo del Cuerpo o Escala de procedencia, así como los derechos económicos inherentes al grado personal que tuvieran reconocido.

37. Atala.— 1.— Honako arrazoi hauetakoren batengatik galtzen da euskal Administrazio Publikoetako funtzionari izatea:

a) doakionak idatziz uko eginez,

b) zerbitzutik behin-betiko kentzea ekar dezan sendetsitako zentzabide-zigorra,

c) erabateko edo kargu publikorako debeku berezia daraman pena nagusia edo gainerakoa,

d) Espainiako naziotasuna galtzea,

d) derrigorrezko edo borondatezko jubilazioa, eta

f) heriotza.

2.— Funtzionari izatea galduko dute halaber:

a) bere zuduagatik borondatezko lan-utzialdian hamar urte etengabe egin ondoren, jarduneko zerbitzura itzultzea eskatu ez dutenek,

b) denbora igaro edo 61. atalaren lehenengo a) eta c) idazatietan ohartemandako zerbitzu berezietako edo borondatezko lan-utzialdian aldarrikatu zireneko egoera indargabetu ondoren, horretarako jarritako legezko epearen barruan, jarduneko zerbitzura itzultzeko eskabiderik egin ez eta, bere zuduagatik, borondatezko lan-utzialdiko egoeran sartzeko beharrezko den benetako zerbitzu-aldirik ez dutenek,

c) nahitaezko lan-utzialdian izan eta, 63. atalaren 3. idazatian ohartematen denez lanpostuak betetzeko lehiaketetan parte hartu ez dezatenek edo, Administrazioak hala agindu arren, iharduneko zerbitzura berriro sartu nahi ez eta, bere zuduagatik, borondatezko lan-utzialdiko egoeran sartzeko beharrezko den benetako zerbitzu-aldirik ez dutenek, eta

d) egitekoetatik kentze-zigorra bete ondoren, horretako ezarrita dagoen epearen barruan iharduneko zerbitzuan berriro sartzeko eskabiderik egin ez eta, bere zuduagatik, borondatezko lan-utzialdiko egoeran sartzeko beharrezko den benetako zerbitzu-aldirik ez dutenek.

38. Atala.— 1.— Funtzionariak legez ezarritako adina betetzean aldarrikatuko da ofizioz nahitaezko jubilazioa.

Iharduneko zerbitzuan izatea, jubilazioko gozamen-saritarako eskubidea lortzeko kontagarri diren zerbitzuen gutxienekoa lortzen denean bakarrik luzatu ahal izango da, ezarri beharreko gizarte-emendioko errejimenaren arabera.

2.— Nahiataezko jubilazioa, ofizioz nahiz doakionak eskatuta, eta dagokion espedienteari hasera eman ondoren aldarrikatu ahal izango da, funtzionaria, legez ezarritako jubilazio-adina izan gabe, bere egitekoak betetzeko etengabe gai ez denean edo bere egitekoak egokiro betetzeko gorputzeko ezina edo ahalmenak gutxiturik dituenean.

III Atalburua. Funtzionarien Sailak

39. Atala.— 1.— Funtzionariak, Kidegoan sartzeko eskatzen den titulazio-mailaren eta bete beharreko egitekoen bateratasunaren arabera, Kidegoka bilduko dira. Kidegoen barruan, egitekoen espezializazioa

Artículo 37. 1.— La condición de funcionario de las Administraciones Públicas vascas se pierde por alguna de las siguientes causas:

a) Renuncia escrita del interesado,

b) Sanción disciplinaria firme que suponga la separación definitiva del servicio,

c) Pena principal o accesoria de inhabilitación absoluta o especial para cargo público,

d) Pérdida de la nacionalidad española,

e) Jubilación forzosa o voluntaria, y

f) Fallecimiento.

2.— Asimismo perderán la condición de funcionario:

a) Quienes, transcurridos diez años de permanencia ininterrumpida en la situación de excedencia voluntaria por interés particular, no hubieran solicitado su reingreso al servicio activo,

b) Quienes, transcurrido el tiempo o extinguida la condición en virtud de la cual fueron declarados en la situación de servicios especiales o en la de excedencia voluntaria prevista en el apartado 1 a) y c) del artículo 61, no soliciten su reingreso al servicio activo en el plazo legal establecido para ello, y carezcan del tiempo de servicios efectivos necesario para acceder a la situación de excedencia voluntaria por interés particular,

c) Quienes, hallándose en situación de excedencia forzosa, no participen en los concursos para la provisión de puestos de trabajo en los términos previstos en el apartado 3 del artículo 63 o no accedan al reingreso al servicio activo cuando así se disponga por la Administración con carácter obligatorio, y carezcan del tiempo de servicios efectivos necesario para acceder a la situación de excedencia voluntaria por interés particular, y

d) Quienes, cumplida la sanción de suspensión de funciones, no soliciten su reingreso al servicio activo en el plazo establecido para ello y carezcan del tiempo de servicios efectivos necesario para acceder a la situación de excedencia voluntaria por interés particular.

Artículo 38. 1.— La jubilación forzosa se declarará de oficio al cumplir el funcionario la edad legalmente establecida.

Sólo podrá prorrogarse la permanencia en el servicio activo si con ello se alcanza el mínimo de servicios computables para causar derecho a la pensión de jubilación, conforme al régimen de previsión social de aplicación.

2.— Se podrá declarar la jubilación forzosa, bien sea de oficio o a petición del interesado y previa instrucción del correspondiente expediente, cuando, no alcanzando el funcionario la edad de jubilación legalmente establecida, se halle en situación de incapacidad permanente para cumplir sus funciones o en estado de imposibilidad física o disminución de sus facultades que le impida ejercer correctamente las mismas.

Capítulo III. Cuerpos de funcionarios

Artículo 39. 1.— Los funcionarios se agruparán por Cuerpos en razón al nivel de titulación exigido para el acceso a los mismos y el carácter homogéneo de las funciones a realizar. Dentro de los Cuerpos, en

kontutan hartuz, Eskalak izan daitezke.

2.– Guztientzako sarrerako eta barne-mailatan gora egiteko frogak arrazoibideratu ahal izateko, lanpostu-zerrendak antolatzeko helburuak Kidegoek osatzen dituzte.

40. Atala.– 1.– Eusko Legebiltzarrak legez sortu, aldatu edo kenduko ditu Kidego eta Eskalak eta honako hauek zehaztu beharko ditu:

a) horren izena,

b) horietan sartzeko eskatuko den titulazioa,

c) bete beharko dituzten egitekoen definizioa, horien artean administrazio-organuek izendatuta dituzten ahalmen, egiteko edo aginteak ez bait da sekula sartzerik izango, eta

d) horiek dituzten egitekoen espezialitatea dela eta, tratamendu berezia behar duten gaien araudia garatzeko erizpideak ezartzea.

2.– Lehendik dauden beste batzuri izendatutakoen antzeko egitekoak edo berdinak betetzeko ez da Kidego edo Eskalarik sortzerik izango.

41. Atala.– Sailartekoak izango dira Autonomi Elkartearen Administrazioko Kidegoak, eta Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailaren menpe izango dira organikoki, Sail edo Erakunde Burujabe bakoitzarekiko iharduneko menpekotasunaren kaltetan gabe.

42. Atala.– Honako kasu honetan atxiki ahal izango zaizkio lanpostuak Kidego edo Eskala bakarrari, besteak bazter utziz: atxikipena haietan aurrera eraman beharreko egitekoen izaerari nahitaez darionean eta lanpostu-zerrendatan horrela ezarri dadinean. Kidego edo Eskala jakin bati lanpostuak gordetzeak ez ditu ohartematen lanpostu horiei izendatu beharreko osagarrizko lansariak, ez eta guztientzakoak edo gutxienezkoak finkatuko direnik bermatzen ere.

43. Atala.– Funtzionarien Kidegoak, sartzeko eskatutako titulazio-mailaren arabera, honako Talde hauetan bilduko dira:

A) Doktore, Lizentziatu, Injeniari, Arkitektu titulua edo baliokidea.

B) Teknika-Injeniari, Unibertsitate-Diplomadun, Teknika-Arkitektu, Lanbide-Hezkuntzako 3. mailako titulua edo baliokidea.

C) Batxilergo, Lanbide-Hezkuntzako 2. mailako titulua edo baliokidea.

D) Eskola-Gradudun, Lanbide-Hezkuntzako lehenengo mailako titulua edo baliokidea.

E) eskolaritate-egiaztagiria.

IV Atalburua. Administrazio-Karrera

Lehenengo Saila. Erabaki Nagusiak

44. Atala.– Funtzionarien administrazio-karrera norbere graduaren eta lehiaketaz edo izendapen jarez beste lanpostu batzuetara iristeko ahalbidez gauzatzen da, baita Talde bereko edo goragoko beste Kidego batzutara barne-mailako gora egiteez iristeko ahalbidez ere.

Bigarren Saila. Norbere gradua

45. Atala.– 1.– Funtzionari guztiek izango dute

atención a la especialización de las funciones, podrán existir Escalas.

2.– Los Cuerpos complementan los objetivos ordenadores de las relaciones de puestos de trabajo a efectos de la racionalización de las pruebas comunes de acceso y de la promoción interna.

Artículo 40. 1.– La creación, modificación, o supresión de Cuerpos y Escalas se realizará por ley del Parlamento Vasco, que deberá determinar:

a) Su denominación,

b) La titulación exigida para el ingreso en los mismos,

c) La definición de las funciones que deberán desempeñar, sin que entre las mismas puedan comprenderse facultades, funciones o atribuciones propias de los órganos administrativos, y

d) La determinación de los criterios de desarrollo reglamentario de aquellas cuestiones que, por razón de la especialidad de las funciones de los mismos, requieran un tratamiento específico.

2.– No podrán crearse Cuerpos o Escalas para la realización de funciones similares o análogas a las asignadas a otros ya existentes.

Artículo 41.– Los Cuerpos de la Administración de la Comunidad Autónoma serán interdepartamentales y tendrán dependencia orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, sin perjuicio de la funcional con cada Departamento u Organismo Autónomo.

Artículo 42.– Unicamente podrán adscribirse con carácter exclusivo puestos de trabajo a un determinado Cuerpo o Escala cuando tal adscripción se derive necesariamente de la naturaleza de las funciones a desarrollar en ellos y en tal sentido se determine en las relaciones de puestos de trabajo. La reserva de puestos de trabajo a un determinado Cuerpo o Escala no prejuzgará las retribuciones complementarias que a los mismos deban asignarse, ni garantizará la fijación de unas comunes o mínimas para todos ellos.

Artículo 43.– Los Cuerpos de funcionarios estarán agrupados, según el nivel de titulación exigido para su ingreso, en los siguientes Grupos:

A. título de Doctor, Licenciado, Ingeniero, Arquitecto o equivalente.

B. título de Ingeniero Técnico, Diplomado Universitario, Arquitecto Técnico, Formación Profesional de 3.er grado o equivalente.

C. título de Bachiller, Formación Profesional de 2.º grado, o equivalente.

D. título de Graduado Escolar, Formación Profesional de 1.er grado o equivalente.

E. certificado de escolaridad.

Capítulo IV. Carrera administrativa

Sección primera. Disposiciones generales

Artículo 44.– La carrera administrativa de los funcionarios se instrumenta a través del grado personal y de la posibilidad de acceder a otros puestos de trabajo mediante concurso o libre designación, así como por la posibilidad de promoción interna a otros Cuerpos del Grupo superior o del mismo Grupo.

Sección segunda. El grado personal

Artículo 45. 1.– Todo funcionario poseerá un gra-

bere gradua, lanpostuak sailkatzen direneko hogeita hamar mailetariko bat hain zuzen.

2.– Dagokion mailako lanpostu bat edo gehiago bi urte edo gehiago jarraian edo hiru urte tarteak eginez betez eskuratzen da norbere gradua.

Horrez gainera, Funtzio Publikoko Euskal Kontseiluaren txostena jaso ondoren Eusko Jaurlaritzak edo, dituzten aginte-eremuen barruan, gainerako euskal Administrazio Publikoetako jaurtze-erakundeek jar ditzaten berarizko ikastaroak edo gainerako baldintza objetiboak gaindituz ere lortuko da norbere gradua. Ikastaroetara joateko prozedura eta beste baldintza objetiboak finkatzea merezimendu eta gaitasun-erizpideetan bakarrik oinarrituko da.

Deia eta ikastaro horietan egindako lanen emaitzak agirikoak izango dira.

3.– Norbere gradua sendotzeko ez da kontutan hartuko lanpostu batean behin-behingotasunez egindako zerbitzua, egoera hori aurrez zuena kenduz sortu ez bada behintzat. Honelakoan, parte har dezan edo dezakeen aurreneko lehiaketaren ebazpena jaso arte, eta graduari dagokionez, kendutako lanpostuaren maila sendotuz joango da funtzionaria.

Lanpostu batean zerbitzu-aldian iraundako aldia, funtzionariaren beraren lanpostu-mailari dagokion norbere gradua sendotzeko kontutan hartuko da.

4.– Ezingo da inola ere sendotu funtzionaria sartuta dagoeneko Taldeari dagokion tartearen gehieneko mailaz goitiko norbere gradurik.

5.– Funtzionaria lanposturen baten ari dadin bitartean lanpostu horren maila aldatzen bada, hor izan den denbora lanpostu horrek izan duen sailkapen-mailarik haundienez neurtuko da.

6.– Euren graduari dagokionetik bi maila baino goragoko lanpostua izan dezaten funtzionariek duten gradua baino bi mailaz goragokoa sendotuko dute jarraian egindako bi urtez behingo zerbitzuegatik, betetako lanpostuarenari dagokionaz goragokoa inoiz izan ez daitekeela.

7.– Funtzionari batek sendotze-bidean dagoen graduaz goitiko mailako lanpostua lor dezanean, hartan emandako zerbitzuen denbora aipatutako sendotze horretarako kontatuko da, hala eskatzen badu. Kasu horretan, horrela kontatutako aldia ez da beste gradurik sendotzeko erabiliko.

8.– Lege honetan ezarritako prozedurez goragokorik lortu ez bitartean, haiei dauden Talderako ezarritako tartearen gutxieneko mailari dagokion norbere gradua izendatuko zaie.

9.– Barne-mailatan gora eginez beste Kidego eta Eskalatara iritsi daitezen funtzionariek aldez-aurretik sendotua zuten norbere gradua izango dute, gradu hori, Kidego edo Eskala berriak hartzen dituen Taldeari dagozkion mailen tartearen barruan badago.

do personal, que se corresponderá con alguno de los treinta niveles en que se clasifiquen los puestos de trabajo.

2.– El grado personal se adquiere por el desempeño de uno o más puestos de trabajo del nivel correspondiente durante dos años consecutivos o tres con interrupción.

El grado personal también podrá adquirirse mediante la superación de cursos específicos u otros requisitos objetivos que se determinen, previo informe del Consejo Vasco de la Función Pública, por el Gobierno Vasco o, en el ámbito de sus respectivas competencias, por los órganos de gobierno de las restantes Administraciones Públicas vascas. El procedimiento de acceso a los cursos y la fijación de los otros requisitos objetivos se fundará exclusivamente en los criterios de mérito y capacidad.

La convocatoria y el resultado de las actuaciones realizadas en los citados cursos serán públicos.

3.– No será computable a efectos de consolidación del grado personal el tiempo de servicios prestados en el desempeño provisional de un puesto de trabajo, salvo que tal situación se hubiera producido por la supresión del anteriormente ocupado. En este caso, y hasta la resolución del primer concurso en que participe o pueda participar, el funcionario seguirá consolidando a efectos de grado el nivel del puesto amortizado.

El período de permanencia en un puesto de trabajo en régimen de comisión de servicios se computará a efectos de consolidación del grado personal que corresponda al nivel del puesto propio del funcionario.

4.– En ningún caso podrá consolidarse un grado personal superior al nivel máximo del intervalo correspondiente al Grupo al que el funcionario pertenezca.

5.– Si durante el tiempo en que el funcionario desempeñe un puesto de trabajo se modificara el nivel del mismo, el tiempo de permanencia se computará con el nivel más alto con que dicho puesto hubiera estado clasificado.

6.– Los funcionarios que ocupen un puesto de trabajo superior en más de dos niveles al correspondiente a su grado personal, consolidarán cada dos años de servicios continuados el grado superior en dos niveles al que poseyeran, sin que en ningún caso puedan superar el correspondiente al del puesto desempeñado.

7.– Cuando un funcionario obtenga destino en un puesto de nivel superior al del grado en que se encuentra en proceso de consolidación, el tiempo de servicios prestados en aquél será computable para la referida consolidación, si así lo solicita. En este caso, el período así computado no podrá ser reproducido para la consolidación de otro grado distinto.

8.– Hasta tanto adquieran otro superior a través de los procedimientos establecidos en esta ley, los funcionarios tendrán asignado el grado personal correspondiente al nivel mínimo del intervalo establecido para el Grupo al que pertenezcan.

9.– Los funcionarios que accedan a otros Cuerpos y Escalas por el sistema de promoción interna, conservarán el grado personal que hubieran consolidado en el de procedencia, siempre que se encuentre incluido en el intervalo de niveles correspondiente al Grupo al que pertenezca el nuevo Cuerpo o Escala.

10.– Zerbitzu berezietan eta nahitaezko lan-utzialdian eta 61. atalaren lehenengo idazatiko c) lerroaldian ohartemandako borondatezko lan-utzialdian emandako denbora, norbere gradua sendotzeko, jarduneango zerbitzuan betetako azken lanpostuan edo, haietako lehenengoan, hala egokituz gero, geroago lehiaketa bidez lortutakoan emandakotzat hartuko da.

Hirugarren Saila. Lanpostuak betetzea

46. Atala.– 1.– Funtzionarientzat gordetako lanpostuak, lanpostu-zerrendetan jarrita legokeena kontutan izanik, lehiaketez eta izendapen jarez baliatuz beteko dira.

2.– Izendapen jarez betetzeko honako hauek bakarrik gordeko dira:

a) Autonomi Elkartearen Administrazioko Artezkariorde eta Lurralde-Ordezkaritzako lanpostuak,

b) gainerako Administrazio Publikoetako artezkaritza-mailako lanpostuak, beti ere, ierarkikoki aldi berean funtzionariarentzat gordetako beste baten menpeko ez badira behintzat,

c) Autonomi Elkartearen Administrazioko gorenkargutako, edo hautatutako nahiz izendapenezko beste kargu publikoetako idazkari-lanpostuak, eta

d) lanpostuaren berarizkotasunagatik eta eskatuko den erantzukizun bereziagatik, lanpostu-zerrendetan horrelakotzat zehaztuko lanpostuak.

3.– Lehiaketa da lanpostuak betetzeko bide normala; eta horretan, bete nahi den lanpostuarekiko, dagokion deian emandako merezimenduak baloratuko dira, eta horien artean, jakineko norbere gradua izatea, antzinatasuna, tituluak eta ikasketa-graduak, Administrazio Publikoaren Eskoletan egindako gaitze edo trebatze-ikastaroak eta lehen bete dituen lanpostuen balorazioa nahitaez agertu beharko dute. Bete beharreko lanpostuen nolakoa dela eta, dagokion deian, prozedurako aldi bat gehiago gisa, lehiatzaileak lanpostuaren berarizko zernolakoei zenbateraino egokitzen zaizkien neurtzeko bide emango duten aritze-bidezko saioak, argipide-txostenak edo bakoitzarekin elkar-hizketak egin beharra jarri ahal izango da.

47. Atala.– 1.– Lanpostuak lehiaketaz edo izendapen jarez betetzeko deiak Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitaratuko dira eta, foru Diputazioetakoak edo Udalbatzarrenak direnean, dagokien Kondaira-Lurraldekoan, eta honako hauek izan beharko dituzte:

a) Izena, tokia, maila eta lanpostuaren berarizko osagarria,

b) hori betetzeko eskatzen diren baldintzak, horien artean lanpostu-zerrendetan jasotakoak bakarrik azal daitezkeela, eta

c) eskabideak aurkezteko epea, eta hau ez da inola ere, Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitaratzeko egunetik hasita, hamabost lanegunetik beherakoa izango.

2.– Lehiaketarako deian, honako hauek sartuko dira: merezimenduen baremoa, sartutako berarizko

10.– El tiempo de permanencia en la situación de servicios especiales y excedencia forzosa, así como en la de excedencia voluntaria prevista en el párrafo c) del apartado 1 del artículo 61, será computado, a efectos de consolidación del grado personal, como prestado en el último puesto desempeñado en la situación de servicio activo o, en la primera de aquéllas, en el que en su caso posteriormente se hubiera obtenido mediante concurso.

Sección tercera. Provisión de puestos de trabajo

Artículo 46. 1.– Los puestos de trabajo reservados a funcionarios se proveerán, conforme a lo que estuviera establecido en las relaciones de puestos de trabajo, a través de los sistemas de concurso y de libre designación.

2.– Unicamente podrán reservarse para su provisión mediante el sistema de libre designación:

a) Los puestos de Subdirector y Delegado Territorial de la Administración de la Comunidad Autónoma,

b) Los puestos de carácter directivo del resto de Administraciones Públicas, siempre que no se encuentren subordinados jerárquicamente a otro asimismo reservado a funcionario,

c) Los puestos de secretaria de alto cargo de la Administración de la Comunidad Autónoma, o de otros cargos públicos, electos o de designación, de las restantes Administraciones Públicas vascas, y

d) Aquellos puestos de trabajo en que, con carácter excepcional y por su especial responsabilidad, así se determine en la relación de puestos de trabajo.

3.– El concurso constituye el sistema normal de provisión, y en él se valorarán, con relación al puesto de trabajo que se trate de proveer, los méritos que se contengan en la correspondiente convocatoria, entre los que deberán figurar necesariamente la posesión de un determinado grado personal, la antigüedad, titulaciones y grados académicos, cursos de formación o perfeccionamiento en Escuelas de Administración Pública y la valoración del desempeño de puestos de trabajo anteriormente ocupados. En atención a la naturaleza de los puestos a proveer, la correspondiente convocatoria podrá establecer, como una fase más del procedimiento, la realización de pruebas de carácter práctico, memorias o entrevistas personales, que permitan evaluar la adecuación de los aspirantes a las específicas características del puesto.

Artículo 47. 1.– Las convocatorias para la provisión de puestos de trabajo, sea por concurso o por libre designación, se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco y, cuando correspondan a Diputaciones forales o Corporaciones locales, en el del Territorio Histórico respectivo, y contendrán necesariamente:

a) Denominación, localización, nivel y complemento específico del puesto,

b) Requisitos exigidos para su desempeño, entre los que únicamente podrán figurar los contenidos en las relaciones de puestos de trabajo, y

c) Plazo de presentación de solicitudes, que en ningún caso podrá ser inferior a quince días hábiles, contados a partir de la fecha de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– En las convocatorias de concurso deberá incluirse el baremo de méritos, con expresión de las

saioak adieraziz, lanpostura iristeko eskatzen den gutxieneko puntuaketa eta aukeraketa-batzordearen osakideak, eta hor langilegoaren sindikatuetako ordezkaritzak izendatutako ordezkari batek izan beharko du.

3.– Deien ebazpenak Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian edo, beharrezko balitz, dagokion Kondaira-Lurraldekoan argitaratuko dira.

48. Atala.– 1.– Jarduneko zerbitzuko edo zerbitzu berezietan diharduten funtzionariek parte har dezakete lanpostuak betetzeko deietan. Halaber, gainerako Administrazio Publikoen zerbitzuan diharduten, edo derrigorrezko edo borondatezko lan-utzialdian daudenek ere parte har dezakete lehiaketan, prozedura hauen bidez jarduneko zerbitzura itzuliz, beti ere, borondatezko lan-utzialdiari dagokionez, horretan gutxieneko iraunaldia bete badute.

2.– Behin-behineko lan-izendapena duten funtzionariek, egoera horretan dirauten bitartean, derrigorrez parte hartu beharko dute beren Kidego edo Eskaletako lanpostuak betetzeko jarritako lehiaketetan.

3.– Lehiaketa bidez lanpostua lor dezaten funtzionariek ez dute hurrengo bi urteetan egingo diren deialdietakoetan parte hartzerik izango. Funtzionariak, epe hori igaro baino lehen, 50. ataleko 3 idazatiko eta 4. idazatiko a) lerroaldian agindutakoaren arabera lortutako lanposturako atxikipena galdu balu, denboraren mugapen hori ez da ezarriko.

49. Atala.– Lanpostuak lehiaketaz betetzeko deiak batera eta urtero egingo dira, eta garai horretan dauden hutsune guztiak hartu beharko dituzte, zerbitzu berezietan edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozeinetan dauden funtzionarienak salbuetsiz.

50. Atala.– 1.– Estatutuko lanpostu-zerrendaren iraunkortasunaren kaltetan gabe, lanpostua betetzea ez da funtzionariaren sendetsitako eskubide izango.

2.– Lanpostuari izendapen jarez atxikitako funtzionariak lanpostu horretatik edonoiz aldatu ahal izango dira.

3.– Lanpostua lehiaketaz lortu duten funtzionariak aldatu ahal izango dira euren lanpostutik gerora sortutako arrazoiengatik, lanpostu-zerrenden bidez burututako edo horietan ohartemandako lanpostuaren edukia aldatu delako, horren eraginez deirako oinarri izan ziren agiangoak alda daitezenean, edo bizkar eman ez arren, lanpostuari izendatutako egitekoak eraginkortasunez burutzea galerazizko etekin eskasak ageriko egin duenez lanpostuan jarduteko ezgai egin delako. Horretarako espedientea egin eta langilegoaren ordezkapen-organuaren txostena jaso ondoren egingo da aldaketa, izendapena egin zuen organuaren zio eta guztiko erabakiz.

4.– Halaber, lanpostu baterako atxikipena galduko da:

a) lanpostua kenduz gero,

b) beste lanpostu baterako izendatua izanez gero,

pruebas específicas que se incluyan, la puntuación mínima exigida para acceder al puesto y la composición de la comisión de selección, en la que deberá figurar un representante del personal, designado por la representación sindical.

3.– Las resoluciones de las convocatorias se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco o, en su caso, en el del Territorio Histórico correspondiente.

Artículo 48. 1.– Los funcionarios que se hallen en situación de servicio activo o servicios especiales podrán participar en las convocatorias para la provisión de puestos de trabajo. Asimismo podrán concurrir, reingresando al servicio activo a través de estos procedimientos, quienes se encuentren en situaciones de servicio en otras Administraciones Públicas, excedencia forzosa o voluntaria, siempre que en este último caso hubieran cumplido el plazo mínimo de permanencia en la misma.

2.– Los funcionarios con destino provisional vendrán obligados, en tanto permanezcan en dicha situación, a participar en los concursos que se convoquen para la provisión de puestos de trabajo propios de su Cuerpo o Escala.

3.– Los funcionarios que obtengan un puesto mediante concurso no podrán tomar parte en los sucesivos que se convoquen dentro de los dos años siguientes. Dicho límite temporal no será de aplicación cuando, con anterioridad a su vencimiento, el funcionario hubiera perdido la adscripción al puesto obtenido en virtud de lo dispuesto en el apartado 3 y párrafo a) del apartado 4, del artículo 50.

Artículo 49.– Las convocatorias para la provisión de puestos de trabajo mediante el sistema de concurso se celebrarán unitariamente y con periodicidad anual, y deberán incluir la totalidad de las vacantes existentes, con excepción de las que obedezcan a funcionarios en situación de servicios especiales o en cualquier otra que conlleve la reserva de puesto de trabajo.

Artículo 50. 1.– Sin perjuicio de la estabilidad de la relación estatutaria, la ocupación de un puesto de trabajo no constituirá un derecho adquirido del funcionario.

2.– Los funcionarios adscritos a un puesto de trabajo por el procedimiento de libre designación podrán ser removidos del mismo con carácter discrecional.

3.– Los funcionarios que accedan a un puesto de trabajo por el procedimiento de concurso podrán ser removidos por causas sobrevenidas, derivadas de una alteración en el contenido del puesto realizada a través de las relaciones de puestos de trabajo o prevista en las mismas que modifiquen los supuestos que sirvieron de base a la convocatoria, o de una falta de capacidad para su desempeño manifestada por rendimiento insuficiente que impida realizar con eficacia las funciones atribuidas al puesto. La remoción se llevará a cabo, previo expediente instruido al efecto e informe del órgano de representación del personal, mediante resolución motivada del órgano que efectuó el nombramiento.

4.– Asimismo, se perderá la adscripción a un puesto de trabajo por:

a) Supresión del puesto,

b) Nombramiento para otro puesto,

c) uko eginez, izendapena egin zuen organuak onartuz gero, eta

d) jarduneko zerbitzuan izatea utziz gero, zerbitzu berezietako, sei hilabetez beherako aldian bere egitekoetan sendetsitako etena edo seme-alabaren bat zaintzeko borondatezko lan-utzialdiko egoera har dezatenak salbuetsiz, egoera horretan izandako aurreneko urtean.

5.– Betetzeko modua aldatuko zaien lanpostuez jabetuko diren funtzionariek lanpostuotan berotan jarraituko dute eta, horiek lanpostua utzi beharreko kasuetan, izendatu zireneko sistemako arauak izango dituzte jaurpide.

51. Atala.– 1.– Beren lanpostuak 50. ataleko 2, 3 idazatietan eta 4. idazatiko a) eta c) lerroaldietan agindutakoaren arabera utziko dituzten funtzionariak bere Kidego edo Eskalako beste lanpostuari atxikiko zaizkio aldi baterako.

2.– Lehen izandako lanpostua kendu izanaren ondorioz beste bati behin-behingoz atxikitako funtzionariek, egin dadin hurrengo lehiaketan eta behin bakarrik, herri berean egon daitezen, kendutako lanpostuak izendatua zuen lan-izendapenagatikako osagarriaren maila bereko edo apalagoko tokiak betetzeko lehentasun-eskubidea izango dute.

52. Atala.– 1.– Funtzionari sartu berriak edo jarduneko zerbitzura lanpostua gorde gabe izanik itzul daitezenak, hutsik dauden bere Kidego edo Eskalako lanpostuei atxikiko zaizkie behin-behingoz, behinbetiko lantokia lehiaketaz edo izendapen jarez lortu arte.

2.– Funtzionari sartu berriak hutsik dauden lanpostuei behin-behingoz atxiki, horiek adierazi dezaten lehentasun-hurrenkeraren arauera, aukeraketaaldiko sailkapen-hurrenkerari jarraiki atxikiko zaizkie.

53. Atala.– 1.– Lanpostu baten behin-behingoz jardun dezaten bitartean, horri izendatutako lansari osagarriak jasoko dituzte funtzionariek eta, beti ere, bere graduari dagokion lantokiaren osagarria.

2.– Aurreko idazatian agindutakoaren kaltetan gabe, behin-behingo atxikipena lehendik betetako lanpostua kentzetik datorrenean eta lanpostu berriari jarritako lansariak kendutakoarenak baino txikiagoak izan daitezenean, aldeagatikako behin-behineko osagarria jasoko du funtzionariak. Doakionak parte hartuko duen edo parte har zezakeen lehenengo lehiaketa ebatzi arte iraungo du osagarri horrek.

54. Atala.– 1.– Kasu berezietan, eta duten lanpostua gordeta dutela, euren Kidego edo Eskalari dagozkien lanpostuetan jarduteko izenda daitezke funtzionariak zerbitzu-aldian, edo atxikitako lanpostuaren berarizkoez bestelako egitekoak burutzeko ere bai.

2.– Zerbitzu-aldia borondatezkoa izango da, hori ezinezkoa balitz, presako eta ezin atzeratuzko kasuak eman daitezenean, derrigorrez jartzearen kaltetan gabe, hori doakiona entzun eta langilegoaren ordezkapen Organuaren txostena jaso ondoren.

3.– Betetako lanpostuari izendatutako lansariak

c) Renuncia, si fuera aceptada por el órgano que efectuó el nombramiento, y

d) Cese en la situación de servicio activo, con excepción de quienes pasen a las situaciones de servicios especiales, de suspensión firme de funciones por un período inferior a seis meses o de excedencia voluntaria por cuidado de un hijo, durante el primer año de permanencia en la misma.

5.– Los funcionarios que ocupen puestos cuya forma de provisión se modifique continuarán desempeñando los mismos, y a efectos de cese se regirán por las reglas del sistema por el que fueron nombrados.

Artículo 51. 1.– Los funcionarios que cesen en sus puestos de trabajo en virtud de lo dispuesto en los apartados 2 y 3, y párrafos a) y c) del apartado 4 del artículo 50, serán adscritos al desempeño provisional de otro puesto de trabajo propio de su Cuerpo o Escala.

2.– Los funcionarios adscritos provisionalmente a un puesto de trabajo como consecuencia de la supresión del anteriormente ocupado tendrán derecho preferente para proveer, en el siguiente concurso que se celebre y por una sola vez, las vacantes existentes en la misma localidad, que fueran de igual o inferior nivel de complemento de destino al que tuviera asignado el puesto amortizado.

Artículo 52. 1.– Los funcionarios de nuevo ingreso o que reingresen al servicio activo sin reserva de puesto serán adscritos provisionalmente a puestos de trabajo vacantes propios de su Cuerpo o Escala, hasta tanto obtengan destino definitivo mediante concurso o libre designación.

2.– La adscripción provisional de los funcionarios de nuevo ingreso a las vacantes existentes se efectuará, siguiendo el orden de clasificación definitivo del proceso selectivo, conforme al orden de preferencia que aquéllos manifiesten.

Artículo 53. 1.– Mientras permanezcan en el desempeño provisional de un puesto de trabajo, los funcionarios percibirán las retribuciones complementarias asignadas al mismo y, en todo caso, el complemento de destino que corresponda a su grado personal.

2.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, cuando la adscripción provisional traiga su causa de la supresión del puesto de trabajo anteriormente ocupado y las retribuciones asignadas al nuevo puesto fueran inferiores a las del amortizado, el funcionario percibirá un complemento transitorio por la diferencia. Dicho complemento se mantendrá hasta la resolución del primer concurso en que el interesado participe o hubiera podido participar.

Artículo 54. 1.– En casos excepcionales, y con reserva de su puesto trabajo, los funcionarios podrán ser asignados, en comisión de servicios, al desempeño de puestos de trabajo propios de su Cuerpo o Escala o a la realización de funciones distintas de las específicas del puesto a que se hallen adscritos.

2.– La comisión de servicios será desempeñada voluntariamente, sin perjuicio de que, si ello no fuera posible, pueda ser conferida con carácter forzoso cuando concurran supuestos de urgente o inaplazable necesidad, previa audiencia del interesado e informe del órgano de representación del personal.

3.– El funcionario en comisión de servicios perci-

jasoko ditu zerbitzu-aldiango funtzionariak. Hala ere, zerbitzu-aldia derrigorrezkoa izan balitz, eta betetako lanpostuari izendatutako lansariak bere lanpostuari dagozkionak baino txikiagoak balira, hori doakionak aldeagatikako behin-behingo osagarria jasoko du egoera horretan iraun dezan bitartean.

4.– Zerbitzu-aldia lanpostu bati bereziki izendatu gabeko aparteko zereginak edo esleituta dituzten lanpostuetako titularrek aldian-aldiko bete ezin dituzten egitekoak burutzeko eman dadinean, bere lanpostuarentzat izendatutako lansariak jasoko ditu funtzionariak.

5.– Zerbitzu-aldiaren iraupena ez da bi urtez gorakoa izango, zerbitzu berezietan diharduenak duen lanpostua betetzeko eman behar izan ez bada.

Laugarren Saila. Barne-mailatan gora egitea

55. Atala.– Funtzionariak euren Taldeaz gorako edo Talde bereko beste Kidego eta Eskalatara barne-mailatan gora eginez sartu ahal izango dira.

56. Atala.– 1.– Barne-mailatan gora egiteko saioetan parte hartzeko, jatorrizko Kidegoan edo Eskalan jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezietan ari, zerbitzu horretan karrerako funtzionaritzan bi urte beteta izan, eta lortu nahi duen Kidego edo Eskalarako jarritako gainerako eskakizunak eta tituluak izan beharko ditu funtzionariak.

2.– Lanpostua barne-mailatan gora eginez eskuratzeko, lortu nahi den Kidego edo Eskalan sartzeko deian ezarritako saio berak gainditu beharko dira. Hala ere, barne-mailatan gora egiteko txandan parte har dezaten izan nahikoak jatorrizko Kidego edo Eskalan sartzeko lehendik eskatutako ezagupenak egiaztatzeko saioak egin behar izatetik jare utzi ahal izango dira.

3.– Barne-mailatan gora egiteko gordetakoak izan eta bete gabe gelditu diren lanpostuak txanda jarean eskeinitakoei gehituko zaizkie.

4.– Barne-mailatan gora eginez beste Kidego edo Eskala batera iritsi daitezen funtzionariak, horien mailako lanpostu hutsei atxikiko zaizkie behin-behingoz, lehiaketaz edo izendapen jarez behin-betiko lanpostua lortu arte. Beti ere, parte hartzeko aukera izan dezaten lehenengo lehiaketan eskaini daitezen lanpostu hutsak betetzeko lehentasuna izango dute txanda jaretik datozen gainerako izan nahikoekiko.

Boskarrén Saila. Higikortasuna

57. Atala.– 1.– Lege honen eremuan sartzen diren funtzionariek lanpostuz aldatzeko duten eskubidea aitortzen da, lanpostu-zerrendetan zehaztu daitezen kasuetan eta abuztuaren 2ko 30/1984 Legean eta apirilaren 2ko 7/1985 Legean ohartemandakoaren arabera.

2.– Euskal Administrazio Publikoetako funtzionariek, lanpostuak betetzeko horietako edozeinek egindako deietan eskuhartu ahal izango dute.

3.– Halaber, euskal Administrazio Publikoek, lanpostu-zerrendetan horretako jarri dadinari jarraiki, birá las retribuciones asignadas al puesto desempeñado. Ello no obstante, si la comisión de servicios hubiera sido conferida con carácter forzoso y el puesto desempeñado tuviera asignadas unas retribuciones inferiores a las del propio, el interesado percibirá mientras permanezca en tal situación un complemento transitorio por la diferencia.

4.– Cuando la comisión de servicios se confiera para la realización de tareas especiales no asignadas específicamente a un puesto de trabajo, o de funciones que no puedan ser atendidas coyunturalmente por los titulares de los puestos de trabajo que las tengan atribuidas, el funcionario percibirá las retribuciones señaladas al puesto de trabajo propio.

5.– La duración de la comisión de servicios no podrá exceder de dos años, salvo que hubiera que conferirla para la cobertura de un puesto de trabajo cuyo titular se encuentre en situación de servicios especiales.

Sección cuarta. Promoción interna

Artículo 55.– Los funcionarios podrán acceder, mediante promoción interna, a Cuerpos y Escalas del Grupo inmediatamente superior al que pertenezcan, o del mismo Grupo.

Artículo 56. 1.– Para concurrir a las pruebas de promoción interna, el funcionario deberá hallarse en situación de servicio activo o servicios especiales en el Cuerpo o Escala de procedencia, haber completado dos años de servicios en el mismo como funcionario de carrera y poseer la titulación y el resto de los requisitos establecidos para el acceso al Cuerpo o Escala al que aspire a ingresar.

2.– El acceso por promoción interna requerirá la superación de las mismas pruebas que las establecidas en la convocatoria para el ingreso con carácter general en el Cuerpo o Escala de que se trate. No obstante, los aspirantes que concurran en el turno de promoción interna podrán ser eximidos de la realización de aquellas pruebas que estuvieran encaminadas a la acreditación de conocimientos ya exigidos para el ingreso en el Cuerpo o Escala de procedencia.

3.– Las vacantes reservadas a promoción interna que resultaran desiertas acrecerán a las ofertadas en turno libre.

4.– Los funcionarios que accedan por el sistema de promoción interna a otro Cuerpo o Escala serán adscritos provisionalmente a puestos de trabajo vacantes propios de aquél, hasta tanto obtengan destino definitivo mediante concurso o libre designación. En todo caso, en el primer concurso en el que puedan participar gozarán de preferencia sobre los aspirantes que provengan del turno libre, para proveer las vacantes que se oferten en aquél.

Sección quinta. Movilidad

Artículo 57. 1.– Se reconoce el derecho a la movilidad de los funcionarios comprendidos en el ámbito de esta ley, en los supuestos que se determinen en las relaciones de puestos de trabajo y conforme a lo previsto en las Leyes 30/1984, de 2 de agosto, y 7/1985, de 2 de abril.

2.– Los funcionarios de las Administraciones Públicas vascas podrán participar en las convocatorias para la provisión de puestos de trabajo efectuadas por cualquiera de ellas.

3.– Asimismo, las Administraciones Públicas vascas podrán cubrir sus puestos de trabajo con funcio-

beste Administraziotako diren funtzionariz bete ahal izango dituzte lanpostuak.

4.– Tokiz aldatzeko eskubidea erabiltzea ahalbideratzeko, horra sartzeko eskatu beharreko egitekoak eta titulu-maila antzekoak dituzten euskal Administrazio Publikoetako Kidego eta Eskalen arteko baliokidetasuna, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak erabakiko du.

58. Atala.– Aurreko atalean ohartemandakoaren arabera Euskal Administrazio Publikoetan lanpostuak betetzera pasako diren funtzionariek, jatorrizko Administrazioko funtzionari izaten jarraituko dute.

Lan-izendapeneko Administrazioan zerbitzuan jardun dezaten bitartean, hor indarrean dauden legeak ezarriko zaizkie eta lanbide-sustapenari, lansari-errejimenari, administrazio-egoerei eta zentzapide-errejimenari buruzko arauak batez ere, zerbitzutik behinbetiko aldentzeko zigorra izan ezik, hau jatorrizko Administrazioko agintedun sailak erabaki beharko bait du.

Nolanahi ere legez ezarritako aldaketa-bideen arabera beste Administrazio Publikoetako lanposturen batera alda daitezenean, lan-izendapeneko Administrazioarekiko harremana besterik gabe ezabaturik gelditzen da.

V Atalburua. Administrazio-egoerak

Lehenengo Saila. Egoerak orohar

59. Atala.– Honako administrazio-egoera hauetan egon daitezke euskal Administrazio Publikoetako funtzionariak:

a) jarduneko zerbitzuan,

b) borondatezko lan-utzialdian,

c) zerbitzu berezietan,

d) derrigorrezko lan-utzialdian,

e) egitekoak utziarazitakoan, eta

f) beste Administrazio Publikoen zerbitzuan.

Bigarren Saila. Jarduneko zerbitzua

60. Atala.– Aurrekontuetan diruz hornitutako zerrendako lanpostua betez funtzionariarentzat gordetako lanpostuan jardun edo zerbitzu-aldia eman zaienean izango dira funtzionariak jarduneko zerbitzuko.

Hirugarren Saila. Borondatezko lan-utzialdia

61. Atala.– 1.– Honako hauetan joko dira borondatezko lan-utzialdiko funtzionaritzat:

a) edozein Administrazio Publikotako beste Kidego edo Eskala batean jarduneko zerbitzuan ari daitezenean, beharrezko egokigarritasuna eskuratua izatea edo herri-alorreko erakundeetan zerbitzuan aritzea salbuetsiz eta, lege honen arabera, beste egoerarik ez dagokienean.

Hori sortu zuen zerbitzu-harremanak dirauen bitartean jarraitu ahal izango dute funtzionariek egoera horretan. Egoera horretatik irtenez gero, jarduneko zerbitzura itzultzeko eskabidea aurkeztu beharko dute 30 eguneko epearen barruan gehienera ere eta, eskabide hori aurkezten ez badute, borondatezko lan-utzialdiko egoeran bere zuduagatik daudela adierazi-

narios que pertenezcan a otras, de conformidad con lo que al efecto se establezca en las relaciones de puestos de trabajo.

4.– Con el fin de posibilitar el ejercicio del derecho a la movilidad, el Gobierno Vasco, a propuesta del Consejo Vasco de la Función Pública, determinará la equivalencia entre aquellos Cuerpos y Escalas de las Administraciones Públicas vascas cuyas funciones y nivel de titulación exigible para el acceso fueran análogos.

Artículo 58.– Los funcionarios que en virtud de lo previsto en el artículo anterior pasen a ocupar puestos de trabajo en las Administraciones Públicas vascas conservarán su condición de funcionario de la Administración de origen.

Mientras mantengan su relación funcional con la Administración de destino les será de aplicación la legislación vigente en esta última, y en concreto las normas relativas a promoción profesional, régimen retributivo, situaciones administrativas y régimen disciplinario, con excepción de la sanción de separación definitiva del servicio, que deberá ser acordada por el órgano competente de la Administración de procedencia.

En todo caso, la relación con la Administración de destino quedará automáticamente extinguida cuando, en virtud de los mecanismos de movilidad legalmente establecidos, pasen a desempeñar un puesto de trabajo en otra Administración pública.

Capítulo V. Situaciones administrativas

Sección primera. Situaciones en general

Artículo 59.– Los funcionarios de las Administraciones Públicas vascas podrán hallarse en alguna de las siguientes situaciones administrativas:

a) Servicio activo,

b) Excedencia voluntaria,

c) Servicios especiales,

d) Excedencia forzosa,

e) Suspensión, y

f) Servicio en otras Administraciones Públicas.

Sección segunda. Servicio activo

Artículo 60.– Los funcionarios se hallarán en situación de servicio activo cuando, ocupando una plaza de plantilla dotada presupuestariamente, desempeñen un puesto de trabajo reservado a funcionario o les haya sido conferida una comisión de servicios.

Sección tercera. Excedencia voluntaria

Artículo 61. 1.– Procederá declarar en situación de excedencia voluntaria a los funcionarios:

a) Cuando se encuentren en servicio activo en otro Cuerpo o Escala de cualquier Administración pública, salvo que hubiesen obtenido la oportuna compatibilidad o pasen a prestar servicios en entidades del sector público y no les corresponda, conforme a esta ley, quedar en otra situación.

Los funcionarios podrán permanecer en esta situación en tanto se mantenga la relación de servicios que dio origen a la misma. Una vez producido el cese en ella, deberán solicitar el reingreso al servicio activo en el plazo máximo de treinta días, declarándoseles, de no hacerlo, en la situación de excedencia voluntaria por interés particular, siempre que reunie-

ko zaie, beti ere, horregatik lege honetan eskatutakoak betetzen badituzte,

b) norbere zuduarengatik eska dezatenean. Honelakoan, zerbitzuaren aldian aldiko beharren menpe geratuko da lan-utzialdia ematea eta funtzionariak, Kidego edo Eskala lortu edo jarduneko zerbitzura itzuli zenetik kontatzen hasita, hiru urte bete arte, ez da lan-utzialdi hori aldarrikatzerik izango, eta egoera horretan ez da jarraian hamar urte baino gehiago, ez eta bi baino gutxiago ere, irauterik izango.

Funtzionaria zentzapide-espedientepean edo zigorra bete gabe egon dadinean, bere zuduagatik ezin emango zaio borondatezko lan-utzialdirik, eta

c) seme-alabaren bat zaintzeaz arduratzeko, horren jaiotze-egunetik edo hori hartutako egunetik kontatzen hasi eta hiru urtetik gorakoa izango ez den aldirako. Ondorengo seme-alabengatik beste lan-utzialdirako eskubidea izango da, eta honek gozatzen ari zen aldiari amaiera emango dio. Aitak eta amak etxetik kanpo lan egin dezatenean, bietako batek bakarrik izango du eskubide horretaz baliatzerik..

Jarduneko zerbitzuko egoerari utzi behar izatetik kontatzen hasita, urtebeteko aldian izango du funtzionariak lanpostua gordetzeko eskubidea. Aldi hori gradu, hirurteko eta gozamen-sarien eskubidetarako hartuko da kontutan.

Lan-utzialdia emateko izan zen arrazoia ezabatu ondoren, edo horretan iraun beharreko gehieneko denbora pasa ondoren, jarduneko zerbitzura itzultzeko eskea gehienez hogeita hamar eguneko epearen barruan egin beharko da, horrela egiten ez bada, norbere zuduagatikako lan-utzialdiko egoerara pasatuz, beti ere, Lege honetan horretako eskatutakoak betez gero.

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.
b) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean:
Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

c) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %45etik %70era bitartekoa denean:
Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.
d) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %70etik %100era bitartekoa denean:
Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, pixkanaka, euskarazko administrazio atalak jarriko dira, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

18. atala.– Entitate bakoitzak 17. atalean ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntz politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

a) erakundearen gaur egungo hizkuntz egoera azalduko da eta, horrez gainera, lanpostu bakoitzari zein hizkuntz eskakizun ezarri zaion eta, hala badagokio, derrigortasun-data ere zehaztuko da. Era berean, euskara-maila eta langileen hizkuntz gaitasun-prozesuari buruzko informazioa ere jasoko da bertan.

b) entitatearen hizkuntz helburuen arabera, zenbat administrazio-atal elebidun eta euskarazko sortuko diren proposatuko da eta, era berean, zehatz-mehatz azalduko da zein lanpostuk osatzen duten atal bakoitza eta zein diren ezarri edo, hala badagokio, moldatuko diren derrigorrezko hizkuntz eskakizunak.

c) ondo zehaztuko da zein neurri hartuko den administrazio-atal elebidunek eta, batez ere, euskarazko administrazio-atalek aurrera egin dezaten. Era berean, zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruotan: administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloetan, hizkuntz paisaian eta, oro har, aipatutako hizkuntz helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan.

d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen.

19. atala.–

1.– Euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzarako planak onartuko dituzte plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, eta horrelakorik onartuta duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak, planaren inplementaziorako egoki derizkioten aldaketak lanpostu-zerrendan jasoko direlarik.

2.– Hizkuntza Politikarako Sailordetzak jasotako plan-proposamenei buruzko txostena egingo du hilabete baino lehen. Txosten horretan proposamen horrek euskararen erabileraren normalizazioan duen eragina eta hizkuntzaren alorrean indarrean dauden arauekiko egokitzapena jasoko du. Txosten horri 23. atalean aipatzen den txostena atxikiko zaio, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari luzatutako euskararen erabileraren normalkuntzarako plan-proposamenarekin batera hizkuntz eskakizunen eta derrigortasun-daten ezarpenaren aldaketa-proposamena aurkezten bada.

3.– Euskal herri-administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planei buruzko ebaluazio-txostena egingo dute plana onartu denetik bigarren urtea betetzen denean. Txosten horrek antzemandako hutsune eta zailtasunen ondorioz beharrezkoak diren berrazterketak egitea izango du helburu.

LAUGARREN ATALBURUA
Derrigortasun-daten zehaztea.

20. atala.– Beti ere, derrigortasun-data behar duten lanpostuak zehazteko orduan, honako irizpide hauek hartuko dira aintzakotzat:

a) Lehenengo, lanpostuari dagokion jarduera betetzerakoan jendearekin izaten den harremana. Aztertu egingo da, beraz, lanpostu bakoitzetik eskainitako zerbitzua norentzat den eta harremanak nolakoak eta zenbaterainokoak diren.

b) Bigarren, administrazioaren barruan lanpostuaren harreman-sarea (harremanak norekin, nolakoak eta zenbaterokoak).

c) Hirugarren, lanpostuari dagokion zerbitzua edo atala zein motatakoa den eta zein ezaugarri dituen.

21. atala.– Lanpostuak dotazio bat baino gehiago badu eta zereginak edo jarduera-esparruak bereizi ezin badira, dagokion derrigortasun-data ezartzerakoan lehentasuna izango dute honako irizpide hauek:

1.– Dotazio bat baino gehiagoko lanpostu batean dotazio jakin bat betetzen duen titularrak berak eskatzen badu derrigortasuna bere dotazioan ezartzeko, horrexek izango du lehentasuna gainerako irizpide guztien gainetik.

2.– Lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesu baten ondorioz lehen plangintzaldia baino lehenago bete diren dotazioetan ere lehentasunez ezarriko da derrigortasuna, prozesu horretan euskaraz jakitea derrigorrezko betebeharra izan bada.

3.– Lanpostu batek dotazio bat baino gehiago duenean, lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizunarekiko euskara-maila handiagoa duten titularren dotazioetan ezarriko da derrigortasuna.

4.– Titularren euskara-mailari begiratuta alde handirik ez badago batetik bestera, orduan, adinaren arabera ezarriko da derrigortasuna. Hau da, plangintzaldiaren hasieran lanpostu horretako dotazioen titular bakoitzak duen adina kontuan hartuta. Titular gazteenaren dotazioan ezarriko da derrigortasuna.

5.– Orain arte azaldutako irizpide horiek denak erabilita nahikoa ez bada, lanpostu horretan denborarik gutxien daramaten titularren dotazioetan ezarriko da derrigortasuna.

22. atala.– Derrigorrezko hizkuntz eskakizunak ezartzeko irizpideek administrazio bakoitzean dauden lanpostuetan modu zuzen eta proportzionalean ezartzea izango dute helburu, bereizitasunik egin gabe kidego, eskala, maila edo titulazio-taldearen arabera.
Derrigorrezko hizkuntz eskakizuna ezarrita duten dotazioetan, dagokion plangintzaldiaren barruan jarriko da derrigortasun-data. Aintzakotzat hartuko da dotazio horietako titularrek denbora horretan benetan maila horretara iristeko modua badutela.

23. atala.–

1.– Euskal herri-administrazioek dagokien txostena eskatuko diote Hizkuntza Politikarako Sailordetzari, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5 atalari jarraituz. Beharrezkoa izango da, beraz, txosten hori izatea lanpostuetan derrigortasun-datak eta hizkuntz eskakizunak izendatzeko edozein erabaki hartu aurretik.

2.– Horretarako, herri-administrazio bakoitzak dagokion proposamena bidaliko dio Hizkuntza Politikarako Sailordetzari, honako dokumentazio honekin batera:

a) indarrean dagoen lanpostu-zerrenda.

b) lanpostuen titular direnen edo lanpostua betetzen ari direnen izen-abizenak, jaiotze-data eta euskara-maila zehazturik.

c) sortzekoak diren lanpostuen ezaugarriak, administrazioaren barruan duten tokia.

d) lanpostuaren zereginetan aldaketarik badago eta, horren eraginez administrazio-egituran ere aldaketak sortzen badira eta, horri lotuta, komenigarritzat jotzen bada derrigortasun-datak eta hizkuntz eskakizunak aldatzea, orduan, txostena osatu beharko da hori azaltzeko.

3.– Proposamena eta aurreko atalean jakinarazitako dokumentazioa jasota, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak txostena osatuko du horretaz hilabete baino lehen.

4.– Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egindako txosten hori jaso ondoren, herri-administrazioaren gobernu-organoak hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak ezartzeko erabakia hartuko du. Era berean, horren arabera lanpostu-zerrendan egin beharreko aldaketak egitea onartuko du.

BOSGARREN ATALBURUA
Sindikatuen partaidetzaz.

24. atala.– Herri-administrazio bakoitzak aholku eskatu beharko die Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 102.1. atalean aurrikusitako sindikatu eta erakunde sindikalei:

a) herri-administrazio bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko egin behar duen plana osatzerakoan eta plan hori ebaluatzerakoan.

b) lanpostuei hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzerakoan, lanpostu-zerrendetan egon daitezkeen aldaketak egin aurretik.

25. atala.–

1.– Herri-administrazioek, nork bere esparruan, euskararen erabilera normalizatzeko plana administrazio horretan nola ari den garatzen jakinaraziko diete aurreko atalean adierazitako sindikatu eta erakunde sindikalei.

2.– Era berean, Eusko Jaurlaritzak euskal herri-administrazioetan hizkuntza normalizatzeko prozesua oro har nola ari den garatzen jakinaraziko die aldiro-aldiro aipatutako erakunde sindikalei.

3.– Atalburu honetan ezarritakoak, dena den, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 8. atalak Funtzio Publikoaren Euskal Batzordeari emandako ahalmenak errespetatu beharko ditu beti.

SEIGARREN ATALBURUA
Hizkuntz eskakizunen egiaztatzea eta lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan hauek baloratzeko modua.
Hizkuntz eskakizunen erregistroa.

26. atala.– Derrigortasun-data igarota duten lanpostuak betetzerakoan, ezarritako hizkuntz eskakizuna gainditu duten pertsonak hartuko dira, bai herri-administrazioen zerbitzuan jarduteko langileak aukeratzeko prozesuetan, bai lanpostuak betetzekoetan.

27. atala.– Lanpostuak hizkuntz eskakizunari dagokion derrigortasun-data ezarrita duenean, beharrezkoa izango da horren berri ematea enplegu-eskaintza publikoetan eta hautaketa-prozesuetarako zein lanpostuak betetzeko deialdietan.

28. atala.–

1.– Euskal herri-administrazioen zerbitzupeko langile izateko hautaketa-prozesuetan hizkuntz eskakizuna betetzea derrigorrezkoa denean, eskakizun hori egiaztatzea eska liteke, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, hautaketa-probetan bertan edo langile finko izan aurretik egin beharreko formakuntza-ikastaroan nahiz praktikaldian.

2.– Ikastaro eta praktikaldian parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da hautaketa-proben bitartez lanpostua betetzeko eskatzen den hizkuntz eskakizuna baino bi maila beheragokoa betetzen dela aurretiaz egiaztatzea. Salbuespen izango dira lehen eta bigarren hizkuntz eskaizunak. Kasu horietan euskara meritu modura baloratuko da hautaketa-probetan.

29. atala.– Barne-sustapenaren bidez betetzen diren lanpostuetan ere atalburu honetako aurreko ataletan jasotakoa ezarriko da.

30. atala.– Zerbitzu-eginkizunen kasuan, alde batera utzita langileak egiaztatuta behar duela bere lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna baldin eta hizkuntz eskakizun horrek derrigortasun-data ezarrita baldin badauka, zerbitzu-eginkizunetan betetzen ari den lanpostuaren hizkuntz eskakizuna egiaztatu beharko du langileak lanpostu berriak ere derrigortasun-data ezarrita baldin badauka.

31. atala.–

1.– Bai langileak aukeratzeko, bai lanpostuak betetzeko, euskara ezagutzea meritu modura hartzerakoan egin beharreko balorazioa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 98.4. atalean ezarritakoaren araberakoa izango da. Hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioa aintzakotzat hartuta, euskararen ezagutzari emango zaizkion portzentaiak ondorengo hauexek izango dira, ez txikiagoak, ez handiagoak:

1. eta 2. H.E. - %5etik %10era.
3. eta 4. H.E. - %11tik %20ra.

2.– Dena den, administrazio bakoitzeko kidego edo eskala berean hutsik dauden lanpostuetarako baremazio-portzentaia beti bera izango da eta eskala horretan nagusitzen den hizkuntz eskakizunaren arabera ezarriko da.

32. atala.–

1.– Euskal herri-administrazioen zerbitzuan diharduten langileek hizkuntz eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, honako bide hauek daude:

a) Administrazioan lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan edo barne-sustapenerako deialdietan, horretarako berariaz egiten diren probak.

b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak edo edozein euskal herri-administraziok, berariaz helburu horretarako eta 33. atalean xedatutakoaren arabera, egindako ohiko zein aldian aldiko deialdiak.

c) Ohiko deialdiez gainera, 34. atalean ezarritakoaren arabera, premia- eta salbuespen-kasuetan, berariaz horretarako egingo diren probak.

2.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak euskal herri-administrazioetan sartzeko hautaketa-prozesuetako epaimahai kalifikatzaileetan izan behar duen ordezkaritzaz gainera, deialdietan eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko probetan ere hartuko du parte erakunde horretako beste ordezkari batek. Era berean, xedea bera izanik, ordezkaritza hori beharrezkoa izango da lanpostuak betetzeko lehiaketetako batzorde kalifikatzaileak osatzerakoan, baita aldiro-aldiro zein berariaz egindako gainerako deialdietan ere.

33. atala.– Hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko ohiko zein aldian aldiko prozesuak, lanpostuetarako hautatu eta horiek betetzeko direnak salbuespen direla, era honetan garatuko dira:

1.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, aldian-aldian, Autonomia Elkarteko Administrazioaren zerbitzuan diharduten langileek hizkuntz eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko berariazko saioetarako deialdiak egingo ditu.
Saioak, gutxienez, sei hilabeterik behin egingo dira.

2.– Era berean, beste euskal herri-administrazio batzuek horrela eskatzen diotenean ere, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak haien deialdietako saioak burutuko ditu.

3.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen deialdiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

4.– Dekretu honek hartzen duen esparruaren barruko gainerako administrazioek egindako deialdiak ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoarenean argitaratuko dira, deialdiak foru-aldundi, Batzar Nagusi edo udalenak direnean. Deialdia egin duen administrazioaren zerbitzupean diharduten langileek bakarrik parte har dezakete bertan, langileen administrazio- zein lan-egoera edozein dela ere.

5.– Atal honetan aipatutako prozesuetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea ez da inola ere hamar egun naturalekoa baino laburragoa izango. Epea amaituta, onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du deialdia egiten duen administrazioak eta erreklamazioak aurkezteko epea zabalduko du; epe hori zazpi egun naturalekoa izango da gutxienez. Esandako epea amaitu eta aurkeztutako erreklamazioen gaineko erabakia hartu ondoren, onartutako izangaien behin-betiko zerrenda argitaratuko da.

6.– Argitalpena egiteko beste eraren bat deialdian bertan zehazten ez bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo, bestela, dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko dira onartu eta bazter utzitako izangaien zerrendak.

7.– Epaitu beharreko proben edukiak nolakoak diren kontuan hartuta osatuko dira epaimahai kalifikatzaileak. Epaimahaikiderik gehienak karrerako funtzionarioak edo langile finkoak izango dira eta 4. hizkuntz eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute. Dena den, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako deialdiak ez izan arren, erakunde horretako ordezkari batek egon beharko du epaimahaietan.

8.– Deialdietan, edozein herri-administraziok egindakoak izanda ere, beste bigarren saio edo konparaziozko azterketa batzuk egingo direla jasoko da. Lehenengoak egin eta sei hilabete igaro

baino lehen burutuko dira bigarrenak eta lehenengoetara aurkeztu arren gainditzerik lortu ez duten izangaiak baino ezingo dira aurkeztu.

9.– Deialdietako saioen emaitzak, izangaiek egiaztaturiko hizkuntz eskakizunen azalpena eginez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo, bestela, bakoitzaren lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko dira.

10.– Azterketen emaitzak argitaratzen direnean hasita izango dituzte ondorioak hizkuntz eskakizunen egiaztapenek.

34. atala.– Proba bereziak egin ahal izango dira, ezohiko egoeretan hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko premia handia dagoenean eta deialdi arruntetan edo aldirokoetan proba horiek ezin egin daitezkeenean. Horrelakoetan ere, 7. idazatiaren 33. atalean ezarritakoari jarraituko zaio.
Gainerako gorabeherak, besteak beste, esparrua, epeak eta bestelako argibideak, probak iragartzeko deialdian bertan jakinaraziko dira. Proba horiek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egingo ditu Euskal Autonomia Elkartearen Administrazioaren zerbitzuan diharduten langileak badira edo beste herri-administrazio batzuek horrela eskatuz gero. Era berean, herri-administrazioek eurek ere egin ahal izango dituzte proba horiek, nork bere esparruan.

35. atala.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak finkatuko du hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko proben edukia eta forma. Era berean, berak finkatuko ditu ikasteko egitarauak eta metodologiak ere, era horretara, hizkuntz eskakizun bakoitzaz jabetzeko bidea errazagoa izan dadin. Herri-administrazio guztietan nahita nahiez errespetatu beharko dira arlo horietan ezarritako jarraibideak.
Proba horietan kontuan hartuko dira euskarak dituen euskalkiak.
Era berean, lehen eta bigarren hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probetan, edukiak moldatu eta egokitu ahal izango dira azterketarien ama-hizkuntza aintzakotzat hartuta.

36. atala.– Dekretu honetan ohartemandako moduan egiaztatutako hizkuntz eskakizunek balio osoa izango dute Dekretuan bertan adierazitakoari jarraituz, indarrean dagoen arauterian ohartemandako ondorioetarako eta euskal herri-administrazio guztien aurrean.

37. atala.– Hautaketa-probetan egiaztatutako hizkuntz eskakizunak, nahiz eta azterketa-prozesu horren bidez azterketaria administrazioan ez sartu, behin-betiko balioa izango du 2. 3. eta 4. hizkuntz eskakizunei dagokienez, eta, bi urteko balio-iraupena lehen hizkuntz eskakizuna denean.
Lehen hizkuntz eskakizunaren egiaztapen-epea proba egiten den egunetik hasita hartuko da kontuan. Epearen kontaketa eten egingo da, euskal administrazio publikoetan aldi baterako lanpostua duten langile publikoak horretan ari diren bitartean.

38. atala.–

1.– Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan diharduten langileek Dekretu honetan finkatutako moduetakoren batean egiaztatzen dituzten hizkuntz eskakizunak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean sortutako hizkuntz eskakizunen erregistroan jaso eta inskribatuko dira.

2.– Erregistroan, pertsona bakoitzari buruzko identifikazio-datuekin batera, honako argibideok ere jasoko dira: zein administraziotan diharduen lanean, zein kidego, eskala edo mailatakoa den, egiaztatutako hizkuntz eskakizuna eta egiaztapen-data.

3.– Erregistro honetan inskribatuko dira, hala badagokio, salbuespen-kasuak, baita horretarako arrazoiak eta datak ere. Horrez gainera, aurreko zatian eskatutako argibide berak jasoko dira, hau da, langileari buruzko datuak eta lanpostuari dagozkionak.

39. atala.–

1.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak epaimahaietan edo batzorde kalifikatzaileetan izango dituen ordezkariak, proba bakoitzean egiaztatutako hizkuntz eskakizunen berri emango dio HAEE ri. Erakunde horrek egingo ditu ofizioz erregistroko oharpenak eta interesatuei emango die horren berri.

2.– Erregistroko inskribapenek eta horietatik egindako egiaztapenek, dagokion hizkuntz eskakizuna betetzen dela egiaztatzeko balioko dute, bai interesatuarentzat berarentzat, baita edozein euskal herri-administrazioren aurrean ere.

3.– Hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko egingo diren ohiko zein aldiroko proben emaitzak 33. atalaren 9. idazatian adierazitako moduan argitaratuko dira baina, horrez gainera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro-aldiro, gutxienez sei hilabetero, Dekretu honetan ezarritako egiaztapen-bideak erabilita izan diren egiaztapenen zerrendak argitaratuko ditu.

40. atala.–

1.– Hizkuntz eskakizunen egiaztapenak jasoko dituen erregistroan eranskin bat ere egongo da honako kasu hauek zehazteko:

a) Hautaketa-prozesuren batean zehar hizkuntz eskakizun zehatzen bati dagokion maila erakutsi bai, baina prozesu horren baitako hautaketa-ikastaroa edo probaldia gainditzeke dutenak.

b) Deialdiko oinarri-arauetan horrela oharteman delako, eskatutako hizkuntz eskakizuna baino beheragoko mailaren bat egiaztatuta izan eta praktikaldia amaitu orduko bere lanpostuari dagokion maila gainditzeko dutenak.

c) Hautaketa-prozesuetan hizkuntz eskakizunen bat egiaztatu bai, baina karrerako funtzionari edo langile finko izatea lortu ez dutenak. Egiaztatutakoa lehenengo hizkuntz eskakizuna denean, behin-behineko inskribapena egingo da eta aldi baterako balioa izango du.

d) Bitarteko funtzionarioa edo aldibaterako lan-kontratua duen langilea izanda, hizkuntz eskakizunen bat egiaztatu dutenak. Egiaztatutakoa lehenengo hizkuntz eskakizuna denean, behin-behineko inskribapena egingo da eta honek aldi baterako balioa izango du. Lan-kontratuko aldibaterako langileen kasuan, plantila organikoko lanposturik betetzen duen adierazi beharko da.

2.– Administrazioek, hautaketa-prozesua bukatuta karrerako funtzionarioa izendatzen dutenean edo langile bati behin-betiko lan-kontratua egiten diotenean, horren berri emango diote HAEEri, egiaztatutako hizkuntz eskakizunei buruz jaso beharreko datuak jaso ditzan egiaztapen-erregistroan.

ZAZPIGARREN ATALBURUA
Baliokidetasunak eta salbuespen-arauak.

41. atala.– Euskal herri-administrazioetan hizkuntz eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko agirietan, baliokidetzat joko dira honako hauek:

1.– Hirugarren hizkuntz eskakizunaren baliokideak:

a) EGA eta baliokideak diren egiaztagiri zein diplomak.

b) Hezkuntza-sistemako HE2.

2.– Bigarren HEaren baliokideak:

a) Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskarako 4. maila gainditua.

b) Hezkuntza-sistemako HE1.

Langileek, aurreko atalean zehaztutako kasuetan sartzen direnean, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztuko dute dagokion administrazioan.

42. atala.– Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.3 atalean ezarritakoaren arabera, ondorengo hauek ez dute hizkuntz eskakizunen derrigortasun-araudi orokorra bete beharrik izango, euren lanpostuei dagokienez:

a) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 45 urtetik gora dutenek, interesatuak eurak aurretiaz ados egonez gero.

b) Oinarrizko Batxilerra edo Oinarrizko Heziketa Orokorra gainditu ez duten pertsonak. Ez dira kontuan hartuko, eskolatze-egiaztagiria dela eta, legeak beste helburu batzuetarako ezarritako baliokidetzak edo baliozkotzeak.

c) Minusbaliotasun fisiko edo psikologikoak izanik, gaur egun helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko eragozpenak edo ezintasunak dituzten pertsonak.

d) Hizkuntzak ikasteko prozesuan ezinbestekoa den gutxieneko trebetasun-gaitasunik ez duten pertsonak, ezintasun hori ageri-agerikoa eta egizatatua denean.

43. atala.–

1.– Derrigorrezko azken eguna heltzen denean, lanpostuaren titularra zerbitzuan edo lan-harremanak eten gabe bere lanpostua gordetzeko eskubidea eman dion beste edozein egoera administratibotan aurkitzen bada, hamazortzi hilabeteko salbuespena emango zaio, berriro zerbitzura itzultzen denetik edo lan-harremanak hasten direnetik kontatuta, hizkuntz eskakizuna lehenengoa edo bigarrena denean; hirugarren edo laugarren hizkuntz eskakizunaren kasuan, ostera, hiru urtekoa emango zaio.

2.– Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 97.4 atalean ezarritakoari jarraituz, lanpostuetarako hautaketetan eta horiek betetzeko prozesuetan derrigorrez gainditu beharreko hizkuntz eskakizuna 4.a denean, lehiakide batek ere egiaztatzen ez badu, lanpostu horri 3. hizkuntz eskakizuna ezarriko zaio, baina deialdi horretako lanpostua betetzeko baino ez da izango.

44. atala.– Derrigorrezko hizkuntz eskakizuna egiaztatu ez delako lanpostutik kentzeko espedientea hasi eta gero, izapideak egiten ari diren garaian lortzen badu eskakizun hori lanpostuaren titularrak, espedientea ofizioz gordeko da artxiboan.

45. atala.– Hizkuntz eskakizunak betetzerakoan, Dekretu honen 42. atalean finkatutako salbuespenei dagokien espedientea, langileak zein administraziotan diharduen, hantxe hasiko dira, bai interesatuak berak hala eskatuta, bai ofizioz. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eskaera arrazoitua egin ahal izango dio administrazio bakoitzeko organo aginpidedunari helburu horrexekin.

46. atala.– Hizkuntz eskakizunak betetzeko salbuespenak direla eta, Dekretu honen 42. atalean finkatutako salbuespen-espedienteari hasiera emateko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, salbuespen-motaren arabera:

a) Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 45 urtetik gora izanez gero:

– Salbuespen-eskaera edo interesatuaren adostasuna.

– Jaiotze-egiaztagiria.

b) Oinarrizko Batxilerra edo Oinarrizko Heziketa Orokorra gainditu ez bada:

– Salbuespen-eskera edo interesatuaren adostasuna.

– Interesatuak egindako zinpeko aitorpena. Bertan adieraziko da interesatuak ez duela Oinarrizko Batxilerra edo Oinarrizko Heziketa Orokorra lortu edo gainditu.

c) Minusbaliotasun fisiko edo psikologikoak izanez gero eta, horren eraginez, gaur egun helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko eragozpenak edo ezintasunak izanez gero:

– Dagokion erakundean arlo horretaz arduratzen den organoak egindako egiaztagiria, bertan minusbaliotasuna zein den jakinarazita. Era berean, minusbaliotasunaren maila ere zehaztuko da eta, ahal izanez gero, minusbalia horrek hizkuntz ikasketan duen eragina ere bai.

– Espedientearen xede den langilea inoiz euskaltegiren batean edo batean baino gehiagotan ibilitakoa bada, euskaltegi horrek/horiek gai horretaz egindako txostena.

d) Gaur egun helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez hizkuntzak ikasteko prozesuan ezinbestekoa den gutxieneko trebetasun-gaitasunik izan ez, eta ezintasun hori ageri-agerikoa eta egiaztatua denean:

– Langilearen hizkuntz gaitasun-prozesuaren garapena nolakoa izan den egiaztatzen duen dokumentua. Bertan emandako ordu-kopurua eta prozesuaren emaitza jasoko dira.

– Espedientea interesatuak eskatuta tramitatzen denean, honek edozein hizkuntzari buruz lortutako ezagutza-maila adierazten duen titulu ofizialari buruzko zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du.

47. atala.– 42. ataleko a) eta b) idazatietan zehaztutakoak gertatuz gero, interesatua zein administraziotan diharduen, administrazio horretan erabakiko da zer salbuespen egin behar den, hala badagokio. Ondoren, administrazio berak langileen erregistroan jasoko du hori eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari igorriko dio horren kopia bat, hark hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskriba dezan.

48. atala.–

1.– 42. ataleko c) idazatiaren kasuan, espedienteari hasiera emateko dokumentazioa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundera bidaliko da, han batzorde batek espedientea azter dezan. Erakunde horretako zuzendariak izendatuko du batzorde hori eta teknikariz eta medikuz osatuta egongo da honako era honetara:

a) Foru-aldundietako bateko medikua. Mediku horren lanpostuak dituen zereginen artean, besteak beste, honako eginkizun honek egon behar du: minusbaliotasun fisiko edo/eta psikikoei buruzko espedienteetan txostenak edo erabaki-proposamenak egitea. Foru-aldundietako batek proposatuko du mediku hori.

b) Heziketa berezian aditua den teknikaria, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatua.

c) Logopedian aditua den teknikaria, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatua.

d) Didaktikan aditua den teknikaria, HABEren zuzendariak proposatua.

e) Batzordea aztertzen ari den salbuespena norentzat den eta langile hori zein administraziotakoa den aintzat hartuta, administrazio horretako ordezkari bat.

f) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak proposatutako funtzionaria. Horixe arituko da batzordeko idazkari-zereginetan.

g) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria edo berak izendatutako pertsona izango da batzorde horretako buru.

2.– Batzorde horrek bere jarduera-arauak ezartzen ez dituen bitartean eta arauetan zehaztu gabe dauden kasuetan, batzordeak honako arau hauek aintzat hartuta jardungo du: azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren 30/1992 Legearen II. Izenburuko II. Atalburuan jasotakoak, alegia.

3.– Batzordeak txostena egingo du hiru hilabete igaro baino lehenago eta, bertan, minosbaliotasun horrek gaur egun helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko ezintasunik edo eragozpenik ba ote dakarren zehaztuko du.

4.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak batzorde tekniko-medikoak osatutako txostena igorriko dio langile horri dagokion adminstrazioari, honek dagokion erabakia har dezan.

5.– Minusbaliotasun fisiko edo psikikoren bat izategatik salbuespena aitortzeko erabakia, langileari dagokion administrazioko langileen erregistroan jaso beharko da eta, ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari jakinarazi beharko zaio, honek hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskriba dezan.

49. atala.–

1.– Dekretu honen 42. d) atalean esandakoari dagokionez, hizkuntz eskakizuna ez betetzeko salbuespen-espedientea hasi ondoren, horri dagokion dokumentazio guztia Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundera bidaliko da.

2.– Aipatutako erakunde horrek honako hau egiaztatuko du: ea interesatuak lehen plangintzaldia hasi zenetik euskaraz gaitasuna lortzeko prozesurik bete duen ondorengo baldintza hauek aintzat izanik:

– Gaikuntza-prozesu etengabea izatea eta ikasleak hirurehun eskolordu hartzea. Ordu horiek ikasleak egindako ikastaroaldi osoaren ehuneko laurogeia osatuko dute gutxienez.

– Gaikuntza-prozesu etena izatea eta ikasleak bostehun eskolordu hartzea. Ordu horiek, gutxienez, ikasleak egindako ikastaroaldi osoaren ehuneko laurogeia osatuko dute.

3.– Adierazitako hori horrela izan arren, dagokion administrazioak, ofizioz zein interesatuak horrela eskatuta, salbuespena aitortzeko espedientea has dezake, 42. d) atalean ezarritako arrazoiak aintzat hartuta. Ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak dagokion erakundeak egindako proposamena aztertuko du ikasketa-prozesutik gaitasun eza larria ondorioztatzen den kasuetan.

4.– Beharrezkoa izango da batzorde tekniko batek espediente horiek denak begiratzea. Batzorde hori Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak izendatuko du eta euskara-irakaskuntzan aditu diren pertsonez osatuta egongo da honako era honetara:

a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko bi kide.

b) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko bi kide, erakunde horretako zuzendariak izendatuak.

c) Espedientean azaltzen den langileari dagokion administrazioak proposatutako kide bat. Hizkuntz gaikuntzan teknikari izan beharko du kide horrek. Eskaera egiten denetik hasita hamabost eguneko epean kide hori proposatzen ez bada, dena delako administrazioak batzordekide hori bertako kide izateari uko egiten diola ulertuko da.
d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko kideetako bat izango da idazkaria eta erakunde horretako zuzendariak izendatuko du.
e) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria edo berak izendatutako pertsona izango da batzorde horretako buru.

5.– Batzorde horrek bere jarduera-arauak ezartzen ez dituen bitartean eta arauetan zehaztu gabe dauden kasuetan, batzordeak honako arau hauek aintzat hartuta jardungo du: azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren 30/1992 Legearen II. Izenburuko II. Atalburuan jasotakoak, alegia.

6.– Dagokion langileak egin duen gaitasun-prozesuaren emaitzak baloratu beharko ditu batzordeak, beti ere, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak antolatutako ikastaroetan izandako emaitza orokorrak kontuan hartuta. Era berean, aztertzen ari den gaitasun-prozesuan parte hartu du(t)en euskaltegi(ar)en ikasketa-txostena hartuko da aintzat, baita Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundean ikasle horretaz dagoen txostena ere.

7.– Horrez gainera, batzordeak ongi iritzitako nahi adina txosten eska ditzake beste hizkuntzei dagokienez interesatuak zein ezagutza-maila duen jakiteko edo hizkuntz gaitasunarekin zerikusirik izan dezakeen beste edozein argibideren berri izateko. Era berean, egoki iritzitako proba eta elkarrizketa guztiak egiteko aukera izango du.

8.– Batzordeak hiru hilabeteko epea amaitu baino lehenago burutu beharko du txostena. Gero, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak dagokion administrazioari igorriko dio hark erabaki beharrekoa erabaki dezan.

9.– Hizkuntzak ikasteko ezinbestekoa den gutxieneko gaitasunik izan ez eta ezintasun hori ageri-agerikoa eta egiaztatua denean salbuespena aitortzeko erabakia, langileari dagokion administrazioko langileen erregistroan jaso beharko da eta, ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari jakinarazi beharko zaio, honek hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskriba dezan.

50. atala.– Euskal Autonomia Elkartearen Administrazio Orokorreko herri-langileei dagokienez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izango du hizkuntz eskakizunak betetzerakoan egon daitezkeen salbuespen-espedienteei buruz erabakia hartzeko eskumena.
Prozedura hasi eta sei hilabete igarota berariaz erabakirik hartu ezean, eskaera ezetsi egin dela ulertu behar da.

51. atala.–

1.– Inskribatutako salbuespenak indarrean egongo dira, baldin eta salbuespena onesteko arrazoietan inolako aldaketarik ez badago.

2.– Arrazoi horietan funtsezko aldaketaren bat gertatuz gero, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak berriz aztertuko du kasu hori berariaz eta, lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna eta titularraren euskarazko ezagutza-maila kontuan izanik, lehenago aitortutako salbuespen horrek noiz bukatu behar duen jakinaraziko du. Txosten hori interesatuari dagokion administraziora bidaliko da, hark dagokion erabakia har dezan, langileen erregistroan inskriba dezan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari jakinarazi diezaion, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskribatuta gera dadin.

52. atala.– Hizkuntz eskakizunak ez betetzeko onetsitako salbuespenak behin izendatu eta dagozkion erregistroetan inskribatutakoan bakar-bakarrik izango du balioa espedienteari buruzko erabakia hartu den unean langileak betetzen duen lanpostu horrexeri dagokionez.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.– Hezkuntzari, Osasunari eta Ertzaintzari dagozkion arloak nolakoak diren eta beren eginkizunetan dituzten berezitasunak aintzakotzat hartuta, hizkuntz normalkuntza-prozesua arautzeko arau bereziak izango dira arlo horietan.

Bigarrena.–

1.– Administrazio jakin bati dagokion lurralde-esparruan mila biztanletik behera bizi bada, laguntza berezia izango du administrazio horrek. Era berean, laguntza berezia izango dute, derrigorrez bete beharreko indizearen arabera, derrigorrezko hizkuntz eskakizunik izendatu beharrik ez duten administrazioek ere.

2.– Dena den, derrigorrez bete beharreko indizea mugatu eta zehazterakoan edo hizkuntz eskakizunak martxan jartzeko baliabideak aurrikusi eta planifikatzerakoan, erakundeak elkartu eta batzeko aukera ere izango da, hala nahi izanez gero.

Hirugarrena.– 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arauzkotzekoaren Hirugarren Xedapen Gehiagarrian ezarritakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak, horretarako aginpidea duten erakundeekin ados jarrita, lan egingo du eta jarduerak bultzatu eta sustatuko ditu Estatuak Euskal Autonomia Elkartean duen Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko bidean jartzeko neurriak har daitezen. Ildo horretatik, bai lanpostuei dagozkien betebeharrak ezartzerakoan, bai egokitzapen-planak osatzerakoan, Euskal Autonomia Elkarteari dagozkion herri-administrazioetarako Dekretu honetan ezarritako irizpide berdintsuak erabiliko dira, Administrazio Periferikoan alorretik alorrera egon daitezkeen berezitasunak eta ezaugarriak aintzat izanik beharrezko diren egokitzapenak eginda.

Laugarrena.–

1.– Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

2.– Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilita, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari emango diote horren berri, Dekretu honen 7. atalean ezarritakoari jarraituz.

Bosgarrena.– Aldibaterako lanak egiteko lan-kontratuko langileak hartzeko egiten diren deialdietan euskara ezagutzea eskatzea edo baloratzea ondoren azaltzen den moduan egingo da:

1.– Deialdiaren barruan euskararen ezagutza eskatzeko edo baloratzeko asmoa duen administrazioak lanpostuari zein hizkuntz eskakizun eta hala dagokionean, zein derrigortasun-data ezarri proposatzen duen azaldu beharko dio Hizkuntza Politikarako Sailordetzari. Horrekin batera ondoren aipatzen direnak jasoko dituen txostena ere bidali beharko du:

a) kontratatuko den langilearen bete beharrekoen izaera.

b) hartuko den langilea administrazioaren organigramaren barruan non kokatzen den eta harremanetan jarriko den atalen ezaugarriak.

c) zenbaterainoko eragina duen administratuak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidean, eta langile elebiduna ez hartzeak administratuari eragingo lizkiokeen eragozpenak.

d) azkeneko Errolda edo Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikatik ateratako datuak, herri-administrazioaren lurralde-ezarpenaren esparruko biztanleen hizkuntz gaitasunari buruzkoak.

2.– Hizkuntza Politikarako Sailordetzak txostena egingo du administrazioak aurkeztutako proposamenaren gainean.

Seigarrena.–

1.– Euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak elkarrekin egingo duten lana lankidetza-hitzarmen baten bidez gauzatuko da.

Lankidetza-hitzarmen horrek ondoren aipatzen direnak izan ditzake helburu:

– Heziketa-materialak eta -egitarauak egin eta egokitzea, hizkuntz eskakizunak betetzeko egin beharreko bidea errazagoa izan dadin.

– Euskal herri-administrazioetako langileak euskaraz mintzatzeko gai izan daitezen egingo diren ikastaroak burutzeko behar diren giza-baliabide eta bitarteko materialak aurrikusi eta hornitzea.

– Ebaluaketa-probak egitea eta hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probetan laguntza ematea.

– Hizkuntza normalizatzeko prozesuan sartuta dauden euskaltegietako irakasleak birziklatu eta hobetzeko ikastaroak ematea baita ebaluaketa-taldeak prestatzekoak ere.

2.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak bermatuko ditu lanen koordinazioa eta, Dekretu honetan ezarritako betebeharrak eta helburuak aintzat izanik, aipatutako hitzarmenetik etorriko diren jardueren egokitasuna.

Zazpigarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak euskaraz trebatzeko ikastaro bereziak bultzatuko ditu, euskaldunen ehunekoa hirurogeitik gorakoa den eskualdeetan.

Zortzigarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, aldiro-aldiro eta eurei dagokien eskumen-esparruetan, Euskal herri-administrazioei dirulaguntzak emateko modua arautzeko deialdiak onartuko dituzte, erakundeetako bakoitzak hizkuntzaren erabilera normalizatzeko prozesuan egin beharreko jarduerak gara ditzan.

Bederatzigarrena.– Dekretu honen 5. atalean xedatutakoaren kaltetan gabe, euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren bigarren plangintzaldia honako Dekretu hau indarrean jartzen den egunean bertan hasiko da eta, bukatu, 2002. urteko abenduaren 31n bukatuko da.

Hamargarrena.– Dekretu honen 11. atalean xedatutakoaren kaltetan gabe, 1996ko Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan euskararen ezagutza-mailari buruz jasotako datuak argitaratutakoan, bigarren plangintzaldian administrazio bakoitzak ezarri beharreko derrigorrezko hizkuntz eskakizunak zehazteko derrigorrez bete beharreko indizea datu horietatik aterako da.

Hamaikagarrena.– Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakikerketa bat egingo dute honako hauek izanik helburuak:

a) Hizkuntz eskakizunei buruzko jarraipena egitea honako hau aztertuta, alegia, hizkuntz eskakizunen edukiak ea zein neurritan egokitzen zaizkion lanpostu bakoitzeko zereginak betetzeko behar den hizkuntz trebetasunari eta, hala badagokio, ea egoki den euskal herri-administrazioetan eratutako eskakizunen edukiak edo/eta kopurua aldatzea.

b) HABE k ezarritakoari jarraituz euskaltegietan helduei euskara irakasteko erabili beharreko programazioko mailak gaindituz gero, aitor daitezkeen baliokidetasunak aztertzea.

Azterketa hori Eusko Jaurlaritzari aurkezteko epea Dekretu honen 6.1 atalean ezarritako ebaluazio-txostena aurkezteko azken egunean amaituko da.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehena.– Laugarren hizkuntz eskakizuna aitortuko zaie Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egiaztatutako hizkuntz eskakizunen erregistroan indarrik gabe gelditu den Teknikari Gaituaren hizkuntz eskakizuna egiaztatuta dutenei.

Era berean, laugarren hizkuntz eskakizuna aitortuko zaie lanpostu-zerrendan eurena Teknikari Gaituaren eskakizunarekin duten karrerako funtzionarioei eta lan-kontratuko langile finkoei, baldin eta lanpostu horretan sartu badira hizkuntz eskakizun hori ezarri baino lehenago.

Bigarrena.– Lanpostu bati izendatutako hizkuntz eskakizunari dagokion derrigortasun-data 1995eko uztailaren 30ekoa baino beranduagokoa bada, hau da, lehen plangintzaldia bukatu ondorengoa bada, bigarren plangintzaldikoa balitz bezala jokatuko da ondorio guztietarako.

Hirugarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez, Dekretu hau indarrean jarri arte egiaztatutako hizkuntz eskakizun guztien zerrenda argitaratuko du.

Laugarrena.–

1.– Derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostuak izanik, honako Dekretu hau indarrean jartzen denerako eskakizuna egiaztatzeko epea igarota dagoenean eta lanpostu horietan dauden langileek, administrazioarekin duten lan-harremana edozein eratakoa izanda ere dagozkien hizkuntz eskakizunak egiaztatu gabe dutenean, euskal herri-administrazioek Hizkuntza Politikarako Sailordetzari igorri beharreko proposamenetan ondorengo idazatietan zehaztutakoak aintzat hartuta lanpostu-zerrenda aldatzeko egoki iritzitako proposamenak sartuko dira:

2.– Hizkuntz eskakizuna betetzeko epea, gehienez jota, 2001. urteko abenduaren 31ra luzatu ahal izango da.

3.– Langileak bere lanpostuari izendatutako hizkuntz eskakizuna baino maila bat beheragokoa egiaztatuta badu, langilearekin berarekin ados jarrita eta berariaz beretzat prestatuta, ikasketa-plana finkatuko da, era horretara, langileak denborarik laburrenean eta aurreko lerroaldian ezarritako epea kontuan hartuta, bere lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna bete dezan.

4.– Langilea aurreko idazatian aurrikusitako egoeran ez badago, entzun egingo zaio eta berariaz beretzat prestatutako ikasketa-plana finkatuko, era horretara, langileak denborarik laburrenean eta Xedapen honen 2. idazatian ezarritako gehienezko epea kontuan hartuta, bere lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna bete dezan.

5.– Espedientea hastea, bideratzea eta horretaz erabakia hartzea, beti ere, herri-administrazio bakoitzean arlo horretaz arduratzen den erakundeari dagokio.
Espedientean langileak jarraitutako euskararen ikasketa-prozesuaren garapenari buruz administrazioak duen dokumentazioa jaso beharko da. Bertan egindako ikastaroetan emandako ordu-kopurua eta prozesuaren emaitza jasoko dira.
Erabakia hartu baino lehen, langilearentzat egokiak izan daitezkeen ikastaroei buruzko txostena jaso beharko da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundetik.
Era berean, erabakia hartu baino lehen, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari bidaliko zaio aipatutako espedientea honek Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5 atalean aurrikusitako derrigorrezko txostena egin dezan.

Bosgarrena.– Dekretu hau indarrean jarri eta gero, beronen 40. atalean araututako eranskinean jasotzen diren behin behineko balioa duten hizkuntz eskakizunei dagokienez, jarraian aipatzen diren azpiataletan xedatutakoari jarraituko zaio:

a) 1. hizkuntz eskakizunaren balioa urtebetez luzatuko da, eskakizun honen balioa indarrik gabe gelditzen zen egunetik.

b) mugarik gabeko balioa izango dute 2. eta 3. hizkuntz eskakizunek.

Seigarrena.– Derrigorrezko hizkuntz eskakizunei buruzko araudi orokorra ez betetzeko Dekretu hau indarrean jarri aurretik Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean edo beste herri-administrazio batean jasota dauden salbuespen-eskabideak honako Dekretu honetan ezarritako prozeduraren arabera tramitatuko dira.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indarrik gabe gelditzen dira azaroaren 25eko 250/1986 Dekretua, urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, urriaren 9ko 264/1990 Dekretua, abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretua, otsailaren 15eko 89/1994 Dekretua, abenduaren 19ko 517/1995 Dekretua eta Dekretu honetan xedatutakoaren aurka dagoen maila bereko edo apalagoko beste edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariak, sei hilabeteko epea bukatu aurretik, erabakia hartuko du erakunde horrek berak eta Euskal Autonomia Elkarteko beste erakundeek euren artean izenpetu beharreko hitzarmen-eredua moldatzeko. Bertan, ordu-krediuak

banan-banako prestakuntza-planei egokituko zaizkie, Dekretu honen Laugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

Bigarrena.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari eta Kultura sailburuari ahalmena ematen zaie, bakoitzak bere aginpide-esparruan, Dekretu hau garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak har ditzaten.

Hirugarrena.– Honako Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko apirilaren 15ean.
Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.
Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.
Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

ERANSKINA
Eskakizun bakoitzeko hizkuntz gaitasunen azalpena.

1. Hizkuntz eskakizuna.

Hizkuntz eskakizun hau dagokion lanpostuaren jabea bere ohiko den ahozko nahiz idatzizko edozein testuren ideia nagusia ulertzeko gai izango da, ñabardurez konturatzen ez bada ere.
Gai izango da, halaber, elkarrizketa batean oinarrizko mailan hitz egiteko, eredu-bildumak eta zerbitzu-oharrak ulertzeko, agiriak sailkatzeko, zerrendak egiaztatzeko, eskuliburuak edo dossierrak kontsultatzeko, e.a.
Bere lanean ohiko diren hizkuntz alorreko ekintzei ahoz nahiz idatziz erantzuteko adinako oinarrizko gaitasuna izango du.
Ahoz zein idatziz egoera mugatu eta apal, lagunarteko eta arruntetara egokituko den gaitasun komunikatibo eta funtzionala izango du, sarritan eredu-itxura duten esamoldeak erabiliz.
Ahoz zein idatziz huts gramatikalak egin ahal izango ditu.
Ahoz zein idatziz bestetan baino segurtasunik eza handiagoa agertuko du euskara lehen hizkuntza duten pertsonen aurrean.
Beraz, gai izango da bisitariak leku eta pertsona egokiengana bidaltzeko, lankideei informazio sinplea eman eta eskatzeko, telefonoz zita bat egiteko, elkarrizketarako ordua zehazteko, bilera-eguna jartzeko, materiala agintzeko, mezu laburrak idazteko, eredu-bilduma nahiz galde-sorta betetzeko, material eskariak idazteko, e.a.
Lehen hizkuntza euskara duenak duen erraztasunez ulertzeko gai izango da, nahiz eta hark baino erraztasun txikiagoa izan berak hitz egiteko.
Fonema guztiak behar bezala bereziko ditu nahiz eta gaztelaniaren eragina izan ahoskatzerakoan (erritmoan, azentuan, doinuan).
Ahoz batuaz zein gehien erabiltzen diren euskalkietan esandakoa ulertu beharko du, bai eta batuaz idatziriko testuak ere.
